

ttipi ttapa

338

2002ko azaroaren 14a • XXII. urtea



**Saint Christopheko
zuzendari ohia**

03

5 urtez erakasle eta 28 urtez zuzendari izan ondotik, erretiroa hartu berria du Albert Zubillagak, Senpereko Saint Christophe lizeoko zuzendariak.



**Nafarroak txapela
Etxegaraik marka**

28

Nafarroak irabazi zuen Beran zazpi herrialdetako herri kirol txapelketa. Koxkor biltzen, Fernando Etxegarai beratarrak Euskal Herriko errekorra hobetu zuen.



04 **Euskaldunak Munduan
harremanetan jartzeko ahaleginetan**

LESAKAKO

FERIAK

PATXI ZAMORANO

- Bernizatze-kabina
- Pintura lanak orokorrean
- Pisuak, lokalak, fatxadak

Leitzako bidea • © 948 450734 • 606 37 74 24 • DONEZTEBE
e-posta: patxi@eresmas.net

LESAKA AUTOESKOLA

LCC bi egunetan azterketarik gabe

Tfnoa: 948 63 78 70

Albistur 39 - H

A1 - A - B - BTP - C1 - C eta E karnetak ateratzen ahal dira

KAXULA

Sukaldeko tresnak
Opariak
Pinturak

Albistur, 51 LESAKA • © 948 63 75 58

KOXKILA ostatua

Ongi pasa ferietan!

Zarandia, 4 - LESAKA



TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETKEA ZUZATZA

Tel. 948 637 460

31770 Lesaka (NAVARRA)

**Gasoleoa
etxez etxe
banatzen da**

Feria ederrak pasa!

IÑAKI janari denda

*Feria ederrak
pasa itzazue!!*

Arretxea, 12 ©
948 63 70 85
LESAKA

ODRIOZOLA eta HUIZI

ZERRAILGINTZA TAILERRA

Alkaiaga Industrialdea
Elutsa, Pab 3-18
© 948 631244
BERA

Feria
onak
pasa

A. T. O.

**ESTATU BARNEKO eta
ESTATU ARTEKO
GARRAIOAK**

- Antoiu 23 • Behea
- 31770 LESAKA
- Tfnoa: 948 627644
- Faxe: 948 627656
- otxango@teleline.es

OTXANGO S.L.

GARRAIO AGENTZIA





DATUAK...

- Senpereko Saint Christophe laborantza lizeoa duela 33 urte sortu zenetik bertan aritu da lanean Albert Zubillaga aldudarra. Lehen bortz urtetan erakasle izan zen eta azken hogeita zortzitan zuzendari.
- Erretreta hartu zuen duela bi hilabete. «Familiarekin eta lagunekin egoteko asti gehiago izanen dut orai».
- Hegoaldeko jendea lizeora gehiago hurbiltzea gustatuko litzaioke Zubillagari.



Albert ZUBILLAGA *Saint Christophe lizeoko zuzendari ohia*

AITOR AROTZENA

«Baserriak beheiti egin zuen hemen eta erakaskuntza aldatu behar izan genuen»

Aitor AROTZENA

Hogeita hamahiru urtez, aldaketa handiak somatu izanen duzu Saint Christophe lizeoan...

Hasieran nekazaritzari buruz genituen formakuntzak, nik espainola eta nekazaritza teknikari erakasten nuen. Orduan bortz-sei irakasle izanen ginen eta 80-90 ikasle genituen: gehienak Senpere berekoak eta auzo herrietakoak, Sara, Urruña... Horko gazteak formatu genituen eta gero fini! Gainbehera egin zuen baserriak eta duela hogoi urte aldaketa egin genuen, lehenik arrain hazkuntza eta gero zinegetika maila hortan hasi ginen, ihizi zaingoaren ofizioan. Gaur egun 210 ikasle izanen dira eta hogoi bat erakasle. Orai erretreta hartu dut baina harremana mantentzen dut, bisitan joaten naiz, ez da fite ahazten ahal.

Baserriak Iparraldean izan duen beherakada erakusten du horrek? Bai, bai... Partikulazki kostalde hortan beherakada handia egin du nekazaritzak eta hor turismoari itzuliak dira. Guretako ez zen errexia izan horrela kanbiatea. Parioa bezala zen

«Ez dugu Hegoaldearekin arreglamendurik lortu. 2-3 ikasle izaten ditugu urtero, baina ez du inork frantsesez ikasi nahi»

guretako ingurumenari lotzea, gu ere ez ginen irakaskuntza hortan aritzeko formatuak.

Zuk erran duzunari atxikiz, ingurumenetik turismara itzuli behar ko dira Saint Christophe lizeoko ikasketak?

Ez dut uste, bada ingurumenaren gain lan handia egiteko, hala Iparraldean hala Hegoaldean, denetan. **Azken urteetan INRA erakundearekin elkarlan handia egin duzue. Zertan gauzatzen da elkarlan hori?**

Erakunde horrek bazuen piszifaktoria bat Senperen eta utzi egin zuten. «Zuek ez baduzue nahi, guk segituko dugu gure ikasleekin» erran nien, eta horrela hasi ginen. Guretzat ongi heldu zen, ekipamendua haiek bazuten eta guretzat hor berean zen. Ikasleak entretenitu egiten dira eta

arrainak ez direla liburutako gauza bakarrik ikasten dute. Garbi atxikitzen dugu beti.

Horrenbertze urtez bitxikeri aunitz ere gertatu izanen zaizue, ez da? Gauza frango izan dira bereziak. Arestian erran dizudana, ingurumen sail horietan hasi ginenean gu ere ez ginen hortako formatuak eta lehenik behar izan dugu gihaurek lan egin eta ikasi. Gero, irakasle aritu baina ez da errexia. Lehen erran bezala parioa zen guretzako, baina ia obligatuak ginen, nekazaritza formakuntzan ez baigenuen aitzin egiterik.

Inguru honetan aitzindari izan zarete ingurumen formakuntza horretan...

Orduan ez zen Frantzia osoan inon ere ematen eta orain ere Akitanian bakarrik gara. Nik dudana pena bat, ez dugula Hegoaldearekin arreglamenduren bat egin. Beti bizpahiru ikasle izaten dira, baina guti. Ni izandu naiz Zizurkilen eta Derion helduentzako mendizain ikastaroak ematen, baina Hegoaldetik ez da jendea etortzen. Hegoaldean ez du inork frantsesez ikasi nahi, eta hori da.



Maite Iturre eta Jon Bustillo
"Euskaldunak Munduan" el-
karteko kideak dira.

"EUSKALDUNAK MUNDUAN" ELKARTEA

Kanpoko euskaldunei hemen utzitako familiak bilatzen laguntzen diegu

Aiton-amonen oroimena izaten da gehienetan, duela ehun urte baino gehiago Euskal Herritik joan ziren eta hemen gelditu ziren familien arteko lotura bakarra. Lotura hori, ordea, arrasto guztiak galtzeraino ahuldu egin da hainbat kasutan. Orain, bere sendiaren bila hasi diren pertsona horiek badute "Euskaldunak Munduan" elkarteari esker hemen gelditu zirenak aurkitzen laguntzeko prest dagoen norbait.

Joxemanuel IRIGOIEN

Maite Iturre argentinar euskalduna eta Jon Bustillo Amurrioko gazteak dira Euskaldunak Munduan elkarteko dinamizatzaileak. Maite Brasilen sortua da eta guraso argentinarrek ditu. Birramon-birraitonak Euskal Herrikoak «aitaren aldetik nafarrak eta amaren aldetik bizkaitarrak». Argentinan ttikitatik ibilia da Euskal Etxean, lehenik dantzak ikasten eta gero euskara. Azkenean beka bati esker etorri zen hona eta aukera aprobetxatu zuen birraitonaren herrira joateko sendiaren bila «*ea norbait gelditzen zen*». Suerteza izan zuen Maitek eta «izu-

garrizko poza ere bai» bere sustraiak aurkitzean. Jon eta Maitek Maizpiden ezagutu zuten elkar, euskara ikasten (EGA). Maiteren esperientzia oinarrituz erabaki zuten Euskaldunak Munduan elkarte abiatzea. Batez ere bi arrazoin aipatzen ditu Maitek. Alde batetik bere kasuan bezala «*hainbeste urte pasa ondotik harremana berreskuratzea posible zela ikustea, eta bestetik Argentinako irratietan behin baino gehiagotan entzundako deialdiak galiziarrek eta italiarrak egindakoak, hain zuzen ere, horretarako: beren sendiarekin harremanetan jartzeko laguntza eskatuz*». Hortik etorri zitzaion idea. «*Zergatik guk eus-*

kaldunak ez, batez ere ikusita zenbat euskaldun dau den munduan zehar» gaineratzen du Jonek. Bakarrik Argentinan 3,5 milioi pertsona daude lehen deitura euskalduna dutenak.

SENDIAK ELKARTZEA ETA EUSKAL NORTASUNA ALDARRIKATZEA

Bi helburu nagusirekin abiatu da elkartea. Sendiak elkartzea da lehena eta premiarik handiena duena. Kontuan hartu behar da itsasorearen bertze aldean dauden euskaldun horietan oroimen-na atxikitzen dutenak harat joandakoen ilobak direla «orain 60 urte baino gehiagoko dutenak. Belaunaldi hori desagertuko denean, informazio hori guztia galdu egingen da, eta ezinezkoa izanen litzateke hemengo sendiarekin harremana berreskuratzea». Lehen helburu horrekin batera, bigarren bat ere aipatzen dute Maite eta Jonek: euskal nortasuna. Euskal Herritik joandakoen ondorengoek hainbat ezaugarri (guztiak onuragarriak) aipatu ohi dituzte euskal nortasunari buruz «zintzotasuna, puntualtasuna, langile izatearena, elkartasunerako trebezia eta laguntza eskaintzeko prestutasuna». Kontuak horrela ez da harritzekoa jendea harro sentitzea euskaldun izateagatik. «A mi me llaman el vasco» entzuten omen da maiz itxasoaz gaindi bizi diren euskaldunen ondorengoen ahotan. Horregatik, «betidanik euskal nortasunak izan dituen ezaugarri horiek berreskuratu» nahi ditu Euskaldunak Munduan elkarteak, «eta are gehiago gaur egun bizi ditugun gatazka eta nahasketa politikoarekin». Izan ere, kolore politiko desberdinen gainetik, «"vasco"izaerak esanahi positiboa adierazten baitu».

BILATZE LANEN NONDIK NORAKOAK

Familiakoen erreferentziaren bat bilatu nahirik dabilena, normalki posta elektronikoaren bitartez izaten

omen du lehen kontaktua Euskaldunak Munduan elkartearekin. «Oso bitxia da ikustea nola izaten duten gure berri. Gehienetan norbaitek esan diela-eta. Horrekin batera, ea zenbat kobratzen dugun galdetu ohi digute. Ez dugula ezer kobratzen esaten diegunean, orduan ematen dizkigute datuak eta hasten dugu bilaketa prozesua». Horretarako, detektibeen estrategiak erabiltzen dituzte Maitek eta Jonek bilaketa egiteko (telefono zerrendak, jendeari galdetu...). Zehaztu digutenez, «herri txikietan errazagoa izaten da jendeari galdetu eta erreferentziak lortzea». Hortan, jendearen laguntza eta argibideak erabakiorrak suertatzen zaie bilatze lanak ongi burutzeko.

AZKEN PAUSUA EMATEA INTERESATUEN ESKU

Behin aurkitu denean eskatutako sendiaren erreferentzia zuzena, batzuei eta bertzei elkarren berri ematea izaten da azken urratsa. «Normalean helbideren bat edo telefono bat eskatzen zaie, eta datu horiek batzuei eta besteei eman ondoren, beraien esku uzten dugu hortik aurrerakoa. Ez da gure asmoa inor bortxatzea harreman berri batzutarra, baina bai jakinaraztea, badela bere sendiko norbait haiek ezagutzeko interesa agertu duena». Berriki, adibide polita izan dute Eibarren Sarasketatarrekin. «Gakoa aspaldiko gutun zahar batean euskaraz zeuden hitz batzuetan zegoen. Azkenean, sendia harremanetan jarri zen internetez, eta Argentinakoek erabaki zuten hona etortzea aste bateko bisitan sendia ezagutzeko, justu aurren 100 urte harremana galdutako zela. Oso hunkigarria izan zen elkarketa». Eta horixe da, hain zuzen, Euskaldunak Munduan elkarteak gehien estimatzen duten saria eta egindako lanaz harro sentiarazten diena. Beharbada erreportaje honek balioko du Sarasketatarrena bezala, hemen ere bertze elkarketaren bat gauzatzeko.

SENDIAREN BILA

Hemengo sendiaren bila dabilta aspaldi Argentinara joan ziren pertsona hauen ondorengoak

Honen segidan zerrendatzen direnak, duela ehun urte edo gehiago Argentinara joan ziren. Orain, horien ondorengoak, hemen izan dezaketen familiaren berri jakin nahian dabilta. Informaziorik izanez gero, *Euskaldunak Munduan* elkarteak eskertuko dizu beraiekin kontaktuan jartzea telefonoz deituz eta mezu bat bidaliz: Tfnoa: **686 313 363** e-Posta: **euskaldunakmunduan@yahoo.es**

■ Feliz ONSALO SARRATEA

Juan Bautista Onsalo eta Manuela Sarratearen semea. 1882an sortu zen **Elbeten**. Argentinara emigratu zuen.

■ M^a Pascuala BARRENETXE JAIMERENA

Pedro Barrenetxe Berazueta eta Gabriela Jaimerena Bertizberearen alaba. 1852an sortua **Iruritan**. Argentinara joana 1868an.

■ Andres ITURRALDE IRIGOIEN

Juan Jose Iturralde Elizegi eta Rosa Irigoien Indarten semea. **Lekaroztarra**. Argentinara joan zen 1890ean.

■ Francisco BARRENETXE

Elizondo edo **Elbeten** sortua. Argentinara joan zen.

■ Jaime AKERRETA

Elizondon sortua, bertze 2 anairekin Argentinara joan zen.

■ Francisco ARBURUA MENDIBERRI

Arraioz. Juan eta Teresa anai-arrebekin Argentinara joana.

■ Gregorio ETXABE

Saldiasen sortua. Argentinara joan zen.

■ Paula ZUBIRI LOIARTE

Manuela Loiarteren alaba. **Goizueta**. Argentinara joan zen.

■ Ramon GRAZIARENA

Sunbillan sortua. Argentinara joan zen 1860 aldera.

■ Ignacio SALDIAS (TANCA?)

Pedro J. Saldias eta Josefa Tanca/Taseca/Fasecaren semea. **Labaiendarra**. 1854an sortua.

■ Fermin PEROTXENA JUANIKORENA

Zubietarra. 1910ean sortua Legarra baserrian. Argentinara joan zen 1950ean, Mar del Platara.

■ Pedro TXOPERENA

Lesakarra. Argentinako Necochea herrira joandakoa mende hasieran. **Senperen** bizitua joan baino lehen.

■ Francisco ANSALAS ZUBIETA

Isidro Ansalas eta Josefa Zubietaren semea. **Ettxalartarra**, 1878an sortua. Argentinara joan zen.

■ Gabriel Fco. LASSAGA GANBOA

Gabriel Fco. Lasaga Barrenetxe eta Graciosa Ganboa Endararen semea. **Lesakarra**, 1726an sortua. Argentinara joan zen. Maria Auskirekin ezkondua.

■ Regina ORDOKI IRIGOIEN

Beratarra. 1890an joan zen Argentinara Salustiano, Feliciano eta Brigida anaia-arrebekin. Narcisa gelditu zen.

■ Juan Bautista MIHURA

Zugarramurdiarra. Argentinara joana mende hasieran.

■ Jose ZELAIETA ARRIBILLAGA

Agustin Zelaletaren semea. **Beran** sortua. Argentinara joana.

■ M^a Jacinta ZABALETA OLAETXEA

Leitzarra, Argentinara joana 1910 inguruan.

■ Diego Jose ZUGARRAMURDI ETXEBERRIA

Zugarramurdiarra, 1876an sortua. 5 anai-arreba ziren: Diego, Hilario, Manuel, Vicenta eta arreba. Aita Cipriano

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• TTIPI TXARTELA •



**Jakinazazu
TTIPI TXARTELA
ttipi-ttapa
fundazioa
finantziatzeko
erreminta ere badela.
Nafarroan
euskararendako
dirulaguntzak
gero eta murriztagoak
direnean,
jendearen aportazioa
inoiz baino
garrantzitsuagoa baita**

TTIPI TXARTELArekin

ttipi-ttapa aldizkaria
debalde hartuko duzu
eta txartela duten guztien artean
oparien zozketak
eginen dira hilabetero

ZOZKETAK

KONTZERTUETARAKO SARRERAK

EXTREMODOURO

Zuzeneko diska berriaren grabaketa Zambran

+ **Zambra Dance Club**

azaroaren 16an Lesakako Zambra aretoan
Deitu 948 631 188ra azaroaren 15a baino lehen

Zambra Dance Club (WAGON COOKIN «LIVE»)

azaroaren 23an Lesakako Zambra aretoan
Deitu 948 631 188ra azaroaren 22a baino lehen

M-CLAN + Zambra Dance Club

azaroaren 29an Lesakako Zambra aretoan
Deitu 948 631 188ra azaroaren 28a baino lehen

DESKONTUAK

AUTO ETA BIZIKLETA TALLERRAK

KATEA BIKE Bera
DATUGELAY Elizondo
SANSINENA Elizondo
ZALAIN MOTOR. . . Bera

AUTO-ESKOLAK

SEMPER Bera

ARGAZKI DENDAK

AYLA Bera
GOIKO Bera
MENA Doneztebe/Elizondo
ZALDUA Doneztebe/Elizondo

ARROPA DENDAK

EDURNE Bera
J.J. PICABEA . . . Doneztebe
TXIMELETA Doneztebe
KAMAMILA Doneztebe
IPINGI Elizondo
KATTALINGORRI . . Elizondo
FANTXIKE Elizondo

BITXIDENDAK

ETXARTE BITXIDENDA Lesaka

ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS Lesaka
ALTZURI Lesaka

ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA Doneztebe

KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK . . Elizondo
ZELA KIROLAK . . . Bera
AGARA KIROLAK . . Bera

LENTZERIAK

MARIGRUZ Doneztebe
MAITE Elizondo
DEÑE Lesaka

LIBURUDENDAK

NAFARPRESS Elizondo
LEGARRA Lesaka
MAIMUR Leitza

OPTIKAK

OSTARGI Bera
ARGIBEL Elizondo

ESKULANEKO MATERIALAK

EL DESVAN Bera

PENTSUAK

MENDAUR Doneztebe

TINDATEGIAK

JAIONE Doneztebe

ZAPATADENDAK

KALOTXA Bera
GOÑI Elizondo
NEREA Doneztebe
OSTIZ Doneztebe
MOLINO Irun

• IRAKURLEAK MINTZO •

Aceraliako hauteskundeak eta UGT

Jada hilabete bat pasa da, Aceralian hauteskundeak egin ditugula, denok dakizkigun emaitza eta gora beherekin. Nere asmoa ez da berriro kontu hoiekin bueltaka ibiltzea, bai ordea nahaste berraste honekin jendeari ezkutatu zaizkion gauzak azaltzea.

Azken hilabete hauetan lantokian bizitutakoa izugarria izan da, ELA utzi eta UGT-ra joan direnen partetik, baita sindikatu horretan harrapatu dituzten lankide berrien partetik ere. ELA utzi zuten egunetik hasi ziren jendea beraiekin eraman nahian, mehatxuen bidez (beraiekin joateko bestela... zuzendaritza beraiekin dagoela ta...) modu lotsagarrian. Gero hauteskunde kanpaina iritsi zen eta gauza bera egiten jarraitzen zuten bitartean, sindikatu abertzaleen aurkako kanpaina ekin zioten (sindika-

tu abertzaleei botua emateak ez dauka zentzurik, LAB-ek irabaziz gero lantokia itxiko dutela, etab...), nortzuk eta hauek Bilbo-ko Labe Garaiak itxi zirenean gehiengo sindikala zutenak. Hauteskunde egunean joku zikin hori erabiltzen jarraitu zuten, behin behineko kontratua dutenekin gehiago, lanpostuetara joan eta beraiekin botua ematera eraman, baita kasuren batean bozkak prestatzen diren kabinatxoan beraiekin sartu ere. Mezu garbia helarazi zieten etxetara deitu zieten (bozkatzea ez azalduz gero...) horrela egun guztian zehar. Azpimarratzekoa da Aceralian lan egiten duten inguruko alkate "abertzale" batzuk (EA; PNV) UGT-ren alde egin duten lana, horietako bat zerrendatan atereaz. Jakin nahiko nuke alkate hauek dauden udaletan, zer nolako politika abertzalea eramate den, edota egiten dituzten kudeaketetan ze joku erabiltzen duten. Seguru nago fabrika era-

kutsitakoaren antzera ibiliko direla. Ezin dugu inolaz ere ahortzi azken urtean nola ibili diren, jendea bildu, UGT-en afiliarazi, gero fabrika sartuko zirela promesa eginez. Hau guztia, gezurra baidirudi ere, gure lantokian gertatu da.

Bestalde kontutan izan behar dugu UGT dela, CCOO eta Madrilgo Gobernarekin batera, langilegoaren aurkako erforma gehienak sinatu dituen eta sinatzen jarraituko duena. Baita Euskar Herrian egunero paitzen ditugun eskubideen urraketa erantzunkizun garbia daukana (paktu antiterrorista sinatu zuen eta paktu hau Europar barrena hedatu nahian ibili zen, zehazkiago Arcelorren, LAB sindikatu batzertzeko helburuarekin. Nafarroan sindikatu abertzaleek paitzen duten bazterketa erantzuleto bat da) eta horrelako adibide gehiegi.

Guzti honekin zera adierazi nahi dut. Alderdi politiko zein sindikatu

españolistek gure herriaren aurka daramaten estrategia faxistan beste pauso bat besterik ez da hau. Baita patronalak bere interesak defendatzeko behar duen sindikatu. Beraz UGT sindikatu ez da gure fabrika kasualitatez sortu berri den zerbait, helburu politiko zein patronalei erantzuten dien sindikatu da. Zorionez jendeak denboraren poderioz ezagutu egin ditu, eta bizkarra eman die, beraiek espero zituzten emaitzak lortu gabe geldituz. Gure aldetik langilegoari esker eman, guregan jarri duen konfidantzagatik, eta osatu berri duen langile batzorde honetangak ahaletan egingo ditugu, joku zikin hauek alde batera utzi eta langilego honek merezi duen bezalako batzordea osatzen.

Iban Maia (Aceraliako LAB-eko delegatua)

Angolako kanpainaren berri

Angolara janaria bidaltzeko kanpaina bukatu da. Urriaren 19an Iru-
nen bi kontenedore kargatu ziren; kamioiekin Bilboko portura eramaten dira, handik itsasontziz Angolara eta bertan hartuko dituzte Teresiana monjek behartsuenen artean banatzeko. Eguberri inguruan helmugara iristea espero da.

Zer bidali den: 38.000 kilo janari. 563 kilo botika. 693 kaxa arropa eta beste hainbat tresna eta erreminta. Denetara 50.000 kilo laguntza.

Arantzan eta Igantzin 2.280 kilo janari eta 2.000 euro bildu dira. Ikusten duzuen laguntza ederra ezer ez duten gure senide haiek gustora hartuko dutena. Laguntza hau eman duzuen guztiei, paketeak egiten, eta Iruen kamioiak kargatzen lagundu duzen lagunei gure eskerri be-
roena. Mila esker.

Martin.

I CHE
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guztietan

Trasladoak Iruña, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
☎ 900 704704

BIZIKLETA Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako halizariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxe: 948 637 266

LIBELAK
☎ 948631076 • BERA

H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industriala
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



ZABALIK 2002-11-01

«Gau batez, bereziki ongi oroitzen naiz, 1936ko uztailearen 17a zen; Elizondotik (Saratat) gentozela, halako batean Dantxarinean sekulako kapelu gorriak ikusi genituen. Francoren alde borrokatzeko prest zeuden 40.000 erreketen omen ziren, neurri handi batean erlijiosoek bultzaturik. Nire iduriz, apez anitzek ez zuten bere eginbidea bete, politikan sartu baitziren».

Paul DELPECH
Saratarra
Zabalik 2002-11-01

«A ereduaren ikasi nuen, baina hamar bat urte nituela, guraso talde batek eskolatik kanpoko orduetan euskara klaseak antolatu zituen, eta hala hasi nintzen. Egun lankide dudak irakasle batek eman zizkidan klaseak.

«Garai hartan Altzan bizi ginen, baina 15 urte nituela Lesakara joan ginen. Han ikusi nuen euskara beharrezkoa zela, integratzeko ezinbestekoa zela. Horregatik, bertako euskaltegian eman nuen izena».

Arantxa CEREZO
Euskara irakaslea
Iruixulo 2002-10-15

• 11 GALDERA LABUR •



Rafa MARITXALAR Lesakako korrikalaria

Garraiolaria edo korrikalaria?

Garraiolari ofizioz, korrikalari afizioz.

Atasko batean, zenbat aldiz pentsatu duzu lasterka abudogo joanen zinatekeela?

Auniztan, «holako katxarro berria deustako» edo «hementxe utzi eta lasterka joanen naiz» pentsatu dut.

Krosa edo pista?

Bakoitzak bere denboraldia du, biek hartu politak.

Konpetizioa edo herri lasterketa?

Ongi zaudenean, konpetizio ofiziala. Gero aldetik, herrikoia politagoak dira.

Gehien bete zaituen lorpena?

1.500 metroan Espainiako zortzigarren postua eskuratzea.

Lortu gabe gelditu zaizun helburua?

1.500 metroan marka polit bat egitea.

Zahartzen den neurrian, lasterketa luzeagoak egiten dituzte atletak. Noizko maratonia?

Maratonia egiteko burua galdu behar da, astokeri handia da. Gehiago zahartzeraz utziko dut.

Iruñeko entzierroaren lasterketa ere irabazi duzu. Zezenekin egin duzu?

Inoiz ere ez. Zezenak baino arriskuetsuagoak dira inguruan dituzunak.

Historiako atletik onena?

Sebastian Coe edo Zatopek.

Maritxalartarra izanik, errege familian baduzu parterik?

Ez dut uste, banketera ez zidaten deitu.

Kirolariek bestarik egiten duzue?

Bai, bai... buruari eskatzen duena eman behar zaio. Gero eta guttiago. Bestari ez diot beldurrik, ondorioei baizik.

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marratzkiak
Pilareak	

"Abujardada" Mazoza
Zehar antzekoa Txapeatua

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta
barnizatzen dittut

Phone: 948 631 342 BERA - Phone: 948 637 172 LESAKA

JAROME - GIZOTECIA

Altzate, 19•948630786 •BERA

BAR Botxo OSTATUA

© 948630052•Zalain•BERA

ZJ Zalain jatetxea

1º ZABALIK 1991 • TEL. 948 63 79 67
Bera - Nafarroa

KULTURA

Euskal Kantu txapelketan izen emateko epea azaroaren 26a arte zabalik

Lehenbiziko saioa abenduaren 7an Leitzan eta finala abenduaren 21ean Donezteben

ttipi-ttapa

Euskal kantugintza zabaldu eta erakustaraztea, kantatzeko zaletasuna piztea, kantari berriak plazaratzea eta kantuarerekin gozatzeko helburuekin 2002 urteko euskal kantu txapelketa antolatu du bertze urte batez Euskal kantuzaleen elkarteak. Aurtengo edizioak 9.800 euroko aurrekontua du eta Kantuzaleen Elkarteak Nafarroako Gobernuo Kultur Departamenduari, Nafarroako Rural Kutxaren eta saioetako udalen laguntza izan du hori estaltzeko.

Txapelketan parte hartzeko izena azaroaren 22a baino lehen eman behar da, bai Kantuzaleen Elkartearen (948 141812), baita Nafarroako edozein irratian euskaldunetan, Xorroxin Irratian (948 581226) edo Leitzako Karrape Irratian (948 610914) adibidez.

Aurtengoan hiru saio egingen dira, bi kanporaketa eta finala. Aben-



ARTXIBOKOA

Eskualdean bi saio izanen dira: abenduaren 7an Leitzako zinean eta finala abenduaren 21ean Doneztebeko Bordatxon.

duaren 7an egingen da lehendabiziko kanporaketa Leitzako zinean. Abenduaren 14an Antsoaingo antzerki berrian egingen da bigarren kanporaketa eta abenduaren 21ean, Doneztebeko Bordatxo aretoan finala.

Txapelketak hamabortz urtez goitiko edozeinek hartzen ahal du

parte, bakarka, bikotean edo hiru eta hamar partaide arteko taldeetan. Partaide bakoitzak bi kanta aurkezten ahal ditu kanporaketetan. Finalerako sailkatua suertatuz gero, epaileek erabakiko dute horietako zein eramanen duen Doneztebeko azken saiora. Kanta zahar eta berriak ematen ahal di-

ra, herritar eran eta ez goi mailako polifoniaz, honelako koru eta abesbatzek bertze txapelketa bereziak izaten baidituzte.

Epaimahaia Fermin Iriarte, Zizurreko San Fermin eta Zangotzako Nora koruko zuzendaria, Arantza Ezkurra, Burlatako Musika Eskolako irakasleak eta

Amaia Zubiria kantariak osatuko dute. Doinua, hitzak, ahotsa, trebetasuna, interpretazioa, kantuarren ekarpena eta nobedadea baloratuko dute. Kantu lehiaketa dela kontuan hartuz, kantariak nahi bezalako musika laguntza eramanen ahal du, baina deusen gainetik kantua baloratuko da.

GAZTEAK KANTARI ZIKLOA HERRIZ HERRI

Aipatu behar da aurtengo udazkenean, lehengo urteko esperientzia positiboa kontuan hartuta, Euskal Kantuzaleen Elkarteak Gazteak Kantari zikloa ere antolatu duela, aitzineko urteetako Kantu Txapelketako kantariak osatuko dituzten hamabortz kontzertu Nafarroa osoan barna. Arbizu, Lantz, Luzaide, Zizur Nagusia, Altsasu, Burlata, Barañain, Agoitz, Lekunberri, Lezaeta, Zangotza, Goizueta, Irurtzun, Ibaeta eta Garesen egingen dira kontzertuak.

LESAKA

Rafa
600 819 640
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.
Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

ie Iriarte-Echandi, s.l.
• Aholkularitza
• Artekarietza
• Aseguruak
Kanttonberri I • BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BERA

Urbitate hilerri berriaren proiektua egina da

Kafe antzerki zikloa izanen da azaroako hondarreko bi igandetan

Amaia eta Ainhoa

Berako hilerri berria oraingo kanposantua- ren parean eginen da, karretera eta kanalaren tartean. Altair enpresak aurtan idatzi du proiektua baina obra heldu den urtean gauzatuko da. Proiektuaren arabera, obra egiteak 314.000 euro kostako da eta kontuaren zati bat Nafarroako Gobernuak ordainduko du. Prozedura administratiboaren arabera, orain Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da obra egiteko deialdia, eta aurkeztu direnen artean egokiena deritzonari emanen zaio lana. Urbitarte Hilerriak Berako beharrak asetzeko nahikoa kapazitate izanen du baina oraindik bere funtzionamendurako erregalamedua ez da finkatu (hilobiak banatzeko sistema, nolakoak izanen diren hilibiak...).

Kafe-antzerki zikloa

Urtero bezala Berako Euskara Batzordea eta Bortzirritako Euskara Mankomunitatearen eskutik Kafe Antzerki Zikloa izanen da azaroaren hondarreko igande-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

UGT sindikatuak urriaren 31n ireki zuen Berako San Esteban karrikan duen egoitza berria. Aurkezpen ekitaldian, Juan Antonio Cabrero, Nafarroako UGTko idazkari nagusia, Joseba Marin, Nafarroako UGTko antolaketa idazkaria, Pedro Mazas Baztan-Bidasoako gestora berriaren lehendakaria eta Patxi Altzu, gestora horretako bokaletako bat izan ziren mahaian. Lanaren prekaritatearen eta lan istripuen kontra egiteko asmoa omen dute UGTtik.

tan (azaroaren 17 eta 24an urrenez urren, 19:00tatik aintzin). Goaz eta Goizeko Izarra taldeak ikusi ahal izanen ditutu Errekalde eta Puy ostatutan sketch modulo lanak aurkezten. Bertzalde, Itzatu Oreretako emakume antzerki taldeak Federico Garcia Lorcaen La Casa de Bernarda Alba lana taularatuko du azaroaren 23an 19:30tatik

aintzin Kultur Etxean. Bukatzeko, aipatu Lamixene BATEk Dantza eta Inprobisazio ikastaroa antolatu duela. Cristine Burgos koreografo frantziarrak emanen du eta interesatuek azaroaren 20 a baino lehen 943660330 telefonora deitu beharko dute.

San Martinak Zalainen

Auzoan sortutakoek eta

bertan bizi direnek Zalaingo parke eta frontoi berria inauguratuz eta bazkari bat eginez ospatuko dituzte azaroaren 16an Zalaingo San Martin bestak.

Eguerdian dantzari, bertsolari eta haurren pilota partidarekin inauguratuko dute frontoi berria eta parkea. Zalaingo jatetxean bazkaria izanen dute auzotarrek 14:00etan.

FLASH

Soziolinguistika Jardunaldiak

Azaroaren 15, 22 eta 29an lamotenean Soziolinguistika Jardunaldiak izango dira Bidasoa Ikerketa Zentroak antolatutako arratsaldeko 19:00tan hasita.

Musika esperimentalak

Ertz Arte Guneak azaroaren 16rako Pierre Bastien musikariaren emanaldia antolatu du. Kultur Etxean izanen da arratsaldeko 22:00tan.

Udal haurtzaindegia

Urriaren 24ko Udalbatzarak haurtzaindegia akautzeko epea luzatu du aurtengo abenduaren 20ra arte Navex Consultores S.L.k aurkeztutako eskaerari erantzunez.

Nafarroa Oinezeko Saria

Nafarroa Oinezera la- guntzera joan zirenen artean asteburu bateko 6 pertsonentzako ego- naldia zozketatu du El- sa Tapiak Isaban dau- kan Txapatera landa- apartamentutan. Sari- duna Iker Egaña izan da.

Inaki Irigoien irabazle

Azaroaren 1an ospatu zen Izpegiko moto eta quad igoeran Inaki Irigoien (Txarandaka) suertatu zen garaile. Euskal Herriko eta Es- painiako txapelketan ere lehenbizikoa postuan da- go.

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Alzuri

Sukalde tresneria
eta opariak
Landare eta loreak

Telefonoa: 948 630 370
BERA

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

LESKA

Kultur Etxea eta liburutegia egiteko lanak gibeleratuko dira

Konbentuko eliza ere moldatzea eskatzen du Nafarroako Gobernuak

Aitor AROTZENA

Nafarroako Gobernuak zenbait aldaketa proposatu dizkio udalari konbentuan Kultur Etxea eta liburutegia egiteko proiektuan. Zehazki, konbentuko elizaren balio arkitektonikoak kontuan hartzea eta hori ere moldatzea eskatu du. Gainera, berdegunetara zuzendutako eremuak murrizten direnean, eremu handiagoa helburu berdinerako bideratzea eskatzen du araudiak. Hau egiteko, urriaren 18ko batzarrean udal planaren aldaketa puntuala eztabaidatu zen, baina ez zen onartu. PNVko bortz zinegotzik aldeko botua eman zuten eta Batasunakoak abstenitu ziren. Gehiengo osoa behar denez (6 botu) ez zen onartu.

Batasunaren ustez, «gaia haseratik gaizki eraman da, kultur taldeen eta lau zinegotziren iritzia kontuan hartu gabe». Gainera, proiektu batean milioiak gastatu eta gibeleratuta ondotik, aldaketak egin eta Nafarroako Gobernuak bertze proiektua onartuko duen ez dagoela segurtatua adierazi zuten. Alkate-



ARGAZKIA: AITOR

Urriaren azken aste hondarrean Beran jokatu zen Zazpi Herrialdeko herri kirol txapelketan Nafarroa ordezkatu zuen Beti Gazte sokatira taldeak. Azpitxapeldun izan ziren, Bizkaiko Abadiño taldearen ondotik. Aste hondar honetan, berriz, Nafarroako txapelketan lehiatuko da herriko taldea. Joan den urtean lau kategoriatan txapeldun izan zen Beti Gazte. Aurten ezinezkoa izanen da, 560 kiloko txapelketarik ez delakoz jokatu.

ak, aldiz, «Kultur Etxearen gaian, Nafarroako Gobernuak ez duela deus gibeleratuta» adierazi zuen. «Hutsa aldaketa batzuk proposatu ditu. Aldaketa horiek ez dute Kultur Etxea eta liburutegia afektatzen, karmeliten konbentua denbora berean moldatzea eskatzen dute. Horrek proiektua konplikatzeko du, baina laguntza izanen du».

KIROLA

Rally-Sprint auto lasterketa larunbat honetan Agiñan

Eguzki-Sport eskuderiak zazpi garren aldiz antolatutako Lesakako Herria Rally-Sprint lasterketa larunbat honetan, azaroak 16, burutuko da Agiñan. Gidariak 14:30etan joanen dira Zambratik iteerara, Katazpegiko bidegurutzetara ingurura, eta 15:00etan aterako da lehen parte-hartzailea. Sei kategoriatan banatuko dira autoak eta kategoriatan bako-

tzeko irabazleak 150 euro eta saria jasoko du. Nafarroako junior onenak ere sari hori eramanen du. Scratch sailkapeneko irabazleak 600 euro eta saria eramanen du.

20:00etan jakinaraziko dira emailtzak Zambran eta bertan banatuko dira sariak. Ondotik, goizaldera arteko Motor besta iragarri dute antolatzaileek, Zambran berean.

FLASH

Agiñako moto eta quad igoera

Berez azaroaren lehen aste hondarrean egiteko bazen ere, azaroaren 24an, igandearekin, egingen da Nafarroako igoera txapelketarako baliagarria den Agiñako Moto eta Quad Igoera. Ez dakigu Asier Lekuona lesakarrak proba honetan parte hartuko duen, baina quad probetan bikain dabil Bordaberrikoa. Euskal Herriko txapelketan lehenbizikoa da bere kategorian, proba baten faltan. Gasteizko Gorbeia merkatalgunean egindako proban irabazi egin zuen Lekuonak, lidergoa hartuz. Espainiako txapelketan bigarren da, hemen ere, Logroñon egingen den azken probaren faltan.

Aceralia

Ingurumena zaintzeko 1999tik erabiltzen duen plana aurkeztu zuen lantegiak azaroaren 6an. Heldu den urterako 60.000 metro kubiko hondakin berrerabili nahi dituzte.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGINA
Tfnoa: 948 637 127
LESKA

ANIA
janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zazpi
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

LORE ETXEA
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
Tfnoa: 948 637826

ETXALAR

Herritar andana ibilki da antolatutako ikastaro ezberdinetan

Bernardet Irigoien Landagain eskolako Guraso Elkarteko lehendakari berria hautatu dute

Joseba eta Nerea

Kurtso berria haste-arekin batera ohikoak izaten dira hainbat ikastaro ere martxan paratzea. Udazkenak berekin ekarri ohi ditu gisa honetako ikastaroak gure eskualdeko herri txiki gehienetan eta Etxalarren ere badira andana bat dagoeneko abian daudenak. Adibidez, Lesaka Trikitixa Elkarteko Jone Elgorriagaren eskutik trikitixa klaseak ematen dira asteen behin eskola zaharretan. Roger Bergmanek ere ingeles ikastaroa abian jarri du eta Meca Fermar-ekoak ere mekanografia ikastaroak ematen hasiak dira. Bertzetik, herriko Andre-Mari elkartearen ekimenez, bi ikastaro daude martxan: Eskulanena (Mari Pui Urtasun irakaslearekin) eskola zaharretan eta aerobik (Itsaso Olaskoagarekin) Lan-

dagain eskolako jolas-tokian.

Aldaketak eskolako guraso elkartearen

Herriko eskolako guraso elkartearen urtero junta berritzen da eta joan den hilabetearen egin ziren aurtengo aldaketak. Sartu diren guraso berriak Maite Goienez, Onintze Zinkunegi eta Begoña Olsagasti dira. Utzi dutenak berriak Blanki Perez, Cristina Losada eta Arantxa Bizente izan dira. Eta joan den urtean sartutakoak eta bertze urte batera segituko dutenak Mari Cruz Indaburu eta Bernardet Irigoien dira. Azken honek hartu du lehendakari ardura.

Miguel Indurain Usategietan

Miguel Indurain txirrindulari ohi ezagunak



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Urriaren 28a, uso-sasoiko egunik onena

Aurtengo uso-sasoia ongi hasi ez bazen ere, egunak aitzinera joan ahala hobetuz joan dela erratera ausartuko ginateke, oker handirik egin gabe. Horren lekuko da urriaren 28a. Egun horretan, eguraldia lagun, izugarritzko usopasa izan zen Etxalarren barrena. Usategietako ehizturi koadrila batek adibidez 170 bat uso bota zituen, argazkian ageri den bezala. Taldeko kide batek aipatu zigunez «guttitan suertatzen dira horrelakoak. Sasoi osoan egun bat edo bi izaten dira gisa honetakoak eta pasatzen direnean, pentsatzen dugu merezi duela bi hilabetez esperoan egotea».

aspaldiko ohitura du uso-sasoian gure herri- etortzea. Aurtengoan ere ez da guttiago izan eta urriaren hirugarren igandean, Usategietako Igandean, egin zuen bere itzulikxa larmendiko gainetatik. Goizean goiz Etxalarko bentara ailegatu zen. Han ehizturi batzuk esperotan zituen, elkartu eta Usategietako 8. postura joan ziren denak elkarrekin. Miguel Indurainekin batera Patxi Errandonea, Julian Leikuona, Iñaki Errandonea eta Berako txirrin-



ARGAZKIA: LEGARRA

dulari elkarteko lehendakaria den Enrique Irazoki izan ziren Usategietan. Han eman zuten goiz osoa, nahiz eta ez zuten uso aunitzik ikus- teko aukerarik izan. Eguerdian partean euria

hasi zuen eta ehizturi- en "Artapalonea" txabola- ra joan ziren bazkaltze- ra. Ehiziaz nahi bezain bertze gozatzerik izan ez bazuten ere, lagun giro ederrean pasatu zu- ten denek eguna.

LUR-LAN EKABAZIOAK

Mod. 653 017 967
Tel. 948 637 459

Kurruena Auzoa, 3
31762 BERRA (Nafarroa)

- Exkabazio lanak orokorrean
- Lu ateratzeak, zanpatzeak...

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hiritzaintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

HERRIKO
OSTATU - JATEETEA

Barra, 11 • ☎ 948 63 34 00
Etxeak • NAFARRA

IGANTZI

Bortzirietako pilota txapelketaren finalak Igantzin jokatuko dira

Bertzalde, Xorroxin Irratia eskolan izanen da hurrengo astean

Oskar TXOPERENA

Urriaren 7an hasita-ko Bortzirietako eskuz binakako bigarren Txapelketak Igantzin izanen du akabila azaroaren 24ean. 10 partida jokatuko dira guzira goizeko 9etan hasita. 138 pilotari aritu dira txapelketan eta horietatik 18 igantziarrak izan dira. Finalak eta sari banaketa akautu bezain abudo bazkaria izanen da La Villa Jatetxean izena eman duten parte-hartzaile, antolatzaile eta familikoentzat. Partida politikak ikusteko aukera izanen da seguru-erik, eta partida horietan zenbait igantziar ere ariko denez, ea giro polita ikusteko aukera dugun pilotalekuan.

Abesbatza Leitzara

Azaroaren 17an Leitzan egingen den Abesbatz Bilkura haundirajatekoa da Igantziko Abesbatza ere. Nafarroa osoko bederatzi abesbatz dira biltzeko-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Joan den urtean bezalaxe, aurten ere eskolako haurrak Xorroxin Irratian aditzeko modua izanen da. Azaroaren 18tik 22ra izanen dira irratsaioak, 107,9 FM frekuentzian.

ak, tartean Lesakakoa, Berakoa, Giltzarri Abesbatza eta, erran bezala, Igantzikoa ere. Horretarako, gogotik ari dira lanean, kanta pare bat euren bakarrik abestu beharko baitute eta bertze hiruzpalau gaineko abesbatz guziekin batera. Ondotik bazka-

ria izanen dute parte hartuko duten guziekin beste giroan.

Xorroxin Irratian eskolako haurrak

Udazkeneroko garai beretsuan egiten dio bisita Xorroxin Irratiak Igantziko Eskolari. Aur-

tengo irratsaioak azaroaren 18tik 22ra arte izanen dira. Ikasle eta irakasleak orain prestatzen ari diren emandalak entzun nahi badi-tuzue paratu zuen irrati-107,9 FM frekuentzia, eta irratsaioetan parte hartzen baduzue, hobe.

Herria ezagutuz



Kanposantu ko atea

Pasatu berria dugu Domisantu Eguna eta kanposantua urtero bezain txukun eta polita ikusteko aukera izan dugu. Lehenago ere erran izan dugu kanposantua 1885 eta 1886an egin izaten dela. Berez ez du kanposantuak berezitasun haundirik, baina ateari garrantzi handia eman zitzaion bere garaian. Hasieran paratutako egurrezko atea zenbait urte beranduago aldatu egin zitzaion, 1894an hain zuzen, gaur egun eza-gutzen duguna paratuz. Alde batetik, atearen bazterretako argin lana Ramon Etxeberriak egin zuen 400 pezetatan: 17/3: "diseño hecho por el práctico D. José Acha, debiendo extraer la piedra de la cantera de Choperemborda (...) y labrarse a bujarda fina". Burdinezko atea, berriz, Martin Sance-na herriararen Sucesores de Pinaquy enpresak egin zuen 269 pezetatan. Laguntza eskatu zitzaion herriarrei atearen aldaketa ordaintzeko: 37.L/320: "resultado de la colecta con el objeto de allegar para construir una nueva puerta de hierro en sustitución de la de madera (...) ciento veintiuna pesetas".

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRIAK

Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

SAROBÉ

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

ARANTZA

Udazkeneko Kulturaldiak osasun onean segitzen du

Baserritarren Eguneko azokak herritar eta kanpotar aunitz erakarri ditu bertze behin

Nerea ALTZURI

Pasatu dire bertze urte batez kultur eremuko tartean, urtaro honetan herritarrek antolatzen dituzten egunak. Kulturgintzaren barrenean, hainbat azpimultzotz eginda, eta gai ezberdinak goiburu izanda, urriaren hondarretik azaroaren 3ra iragan ziren egunak, iragarri bezala. Zapore gozoa utzi dute kultur egunek: aste hondar luze horrek erantzun ona eta kalitate ezin hobea izan baitzuen.

Urriaren 31ko iluna-barrean, 30 pertsona inguru, Pello Zabala eguraldi igarleak eskeinitako solasaldiaren lekuko izan ziren.

Biharamunean, eguraldia lagun, zazpigarren urtez Baserritarren Eguna izan zen Ekaitza elkarteak antolatuta. Eguneko zatiak aberatsak izan ziren zinez: ezaguna den merkatu

edo azoka berexian bertakoa bertakoen eskutik izan zen goizean. 37 ordezkariak pilotalekuko eskenatokia osatu zuten. Denetarik ikus zitekeen postu ezberdinetan: eskulanak, opilak, gozokiak, loreak, barazkiak, tresneri zaharra... Plazan berri, frontoiko sarreran, etxe-ko azienden erakusketak izan zen: zaldi, asto, zerri, ahate, oilar, ardi, ahuntz... zer ote zen falta?

ZOKETAKO SARIAK SIMONEA ETA SERORINBORDARA

Harat-hunatean, lagun purrusta ibili zen frontoian: erosten, ikusten, ongi pasatzen... Alkarkide txarangak ere doinuak eskeini zituen eta giro horretan urteroko zozketak egin ziren bazkalaitzinean. Bertako produktuekin osatutako zarea, Simoneko Tomasa Iturria-

rentzat izan da aurten; eta Nafarroako Kutxak ematen duen nekazaritza entziklopedia, Serorinborda Mari Juli Almandozek eraman zuen. Mikel Mendizabal eta Xabier Zeberio bertsolariak frontoian bertso saila kantatu zuten, Zahar Txokoko bazkal otorduren ondoren bezalaxe.

Mus txapelketan Felix Iparragirre eta Migel Mari Alzuri bikotea lehenbiziko eta Xatur Laralde eta Faustino Mariezcurrana bikotea bigarren izan ziren. Horrela, igandeko goizarratsaldeko kirol eta dantza jardunekin akabera eman zitzaizkien kultur egunei. Goizez, Kulki taldearen herri kirol ezberdinekin gozatu zuten haurrek eta arratsaldean Agoitzeko dantza taldearen emankuntza ikusgai izan zen frontoian, asteburu luzeari aio erranez.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA TELEBISTA

Herritarren ordezkariak baserritarren eguneko azokan: Ilargi okindegia, Zapatibaita, Zerrado, Indurzain, Serorinborda, Senberro, Adaxka, Miren eta Tania, Bibiana eta Ixabel, Ceferino Almandoz, Tuaneborda, Urdingoborda, Junkal Iturria, Mendialde, Luis Madariaga, Ekaitzaldea, Panttaleon Errandonea, Bortzak bat kooperatiba, Indurrene, Sagrario Iparragirre, Mari Juli Almandoz, Idoia Etxeberria, Belen Mutuberria, eskulanetako taldea, Seberiano Indakoetxea, Etxerrekeborda, Martinkoborda, Laraburukoborda, Ximonea, Bixen Arozena, Bidegain, Juanito Bergara, Sebastian Bereau, Federiko Etxeberria, Larrainekoborda eta Lorenzo Telletxea.



**ALBERGEA
JATETXEA**
 © 948 634179
ARANTZA



TEL K
K MISET K
ISE K
N HI UZUNK U U, NEU I ET ISEINU ERIN
Ezt r z h T I, F X 3 15 21



Inportaziozko leben kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest
 Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

MALERREKA

UAGNk baserriko emakumeendako ikastaroak antolatu ditu Juansenean

Ordenagailuekin trebatzen edo nekazaritza politikaz ikasiko dute

ttipi-ttapa

Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Elkartek (UAGN) baserriko emakumeendako interesgarriak suertatzen ahal diren ikastaroak antolatu ditu azaroan, Agromujer programaren barnean. Nekazaritza eta abeltzaintza sektorean emakumeari lana ematea da programa honen helburua eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza du. Ikastaroak Doneztebeko Juansenean ematen ari dira. Lehendabizikoa, Kontabilitatean hastapen ikastaroa azaroaren 12tik 15era ematen ari dira. Aktiboa, pasiboa eta netoa; sarrera eta gastuen kontuak, BEZaren kontuak eta bertz hainbat ikasgai izanen dituzte.

Azaroaren 18tik 22ra, goizeko 9:30etatik 13:30etara, Informatika eta Internet oinarritzako ikastaroa ematen da. Windows 2000 Sistema operatiboa, Word 2000



ARTXIBOKOA

Lehendik ere eginak dira Juansenean baserriko emakumeei zuzendutako ikastaroak. Orain, Agromujer kanpainaren barnean UAGNk antolatuta, bertz hainbertze izanen dira azaroan.

testu prozesadorea, ordenagailuaren oinarriko maneju eta bere sistema operatiboa erabiltzaile mailan eta Internet Explorer ikasiko dute.

Azkenik, azaroaren 25etik 28ra, baserri esplotazioaren kudeaketan ikastaroa izanen du-

te. Astelehenean, 9:30etatik 12:30etara ariko dira eta astearte, asteazken eta ortzegunean ordubete gehiago, 13:30ak arte. Europako Nekazaritza Politika edo PAC delakoaren laguntzak eta subentzioak, fiskalitatea, Gizarte Segurantzak eta merkatua

eta komertzializazioa izanen dute ikasgai.

Informazio gehiagorako edo izen emateko UAGNko telefonoetara deitu behar da, Iruñean 948 24 4700 zenbakira eta Elizondon, astearte eta ortzegun goizeko 9:00etatik 13:00etara, 948 580627 zenbakira.

Azkarraga eta Uxarrean propano-gasa sartuko du Cepsak

ttipi-ttapa

Donamariako Azkarraga eta Uxarrean auzoetara propano gasa eramane du Cepsa Elf-Gas enpresak. Horretarako, gas biltegia eta banaketa sarea eraikiko ditu. Ia 20 metro kubiko izanen dituen biltegia, udalak utzitako 48 metro kua droko herri lurrean eginen da eta sarearen bitartez, hogeita bederatzi etxebizitzetara ailegatu du propano gasa.

Aitzinetik, Uxarrean eta Azkarragan ur eta saneamendu sareak berritzeko zuloa egina da eta hori aprobetxatuko da gasa ere eramateko. Gasa biltegitik eramateko 1.630 metro tubo sartuko da eta etxeetatik hartzeko bertz 48 metro tubo sartuko dira. Instalazioaren aurrekontua 81.339,34 eurokoa da eta behin lanak hasita, urtebetez akituko dutela espero da.

**Alberto
RETEGI**
abokatua

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763

ARTEKARI
TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



BELARRA
OSTATUA
JATETXEA

Amezti karrika
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

ITUREN

Aurtizko Mitxeltenekoborda baserria kiskali zuen sute batek

Kukubiltxo antzerki taldeak hirugarren emanaldia eskaini du herrian

Iban ISASI

Urriaren 24an, arratseko 20:30ak aldera hasi zen sute batek Aurtizko Mitxeltenekoborda baserria erre zuen eta etxebizitzarik gabe utzi ditu bertan bizi ziren Angel Aranburu eta Virginia Mitxelena senar-emazteak eta bi seme-metxoak. Sabaian bildua zuten belarrak azkar hartu zuen su eta istant batean zabaldu zen baserri osoko solairuetara. Lehen solairuko paretak bakarrik gelditu ziren zutik. Dena den, onik atera ziren bizilagunek aziendak ateratzeko astia izan zuten.

Oronoz-Mugairiko eta iruñeko su-hiltzaileak eta herriko hainbat bizilagun sua itzaltzen saiatu baziren ere, erran bezala, teilatua eta bigarren solairua erabat kixkaliak gelditu ziren.

Biharamonean, su hondarrak zaintzen ari ziren oraindik su-hiltzaileak, batez ere bellar idorra kontzen den lekuan, baita eskonbro-



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Mitxeltenekobordako goitiko solairua erabat kixkali egin zuen suak.

ak ateratzen ere. Bizilagunak auzolanean aritu dira, barnealdea botatzen eta zaborrak ateratzen, berritik eraikitzeko asmoarekin. Joxe Mari Gorosterrazu alkateak jakinarazi duenez, etxea berriz egiteko tramite guziak azkartzen saiatuko da Herriko Etxea: «lizentziak emateko eta, kontuak

mantso joan ohi dira, baina hemen erreztasun guziak emanen ditugu, lehenbailehen lanean hasi ahalizateko». Dirulaguntzaren bat emateko aukera aztertzen ari dira Herriko Etxean eta kontu korronte bat ere ireki da Rural Kutxan nahi duenak laguntzeko: 3008 0050 36 1145857023.

FLASH


Herriko Ostatuaren enkantea

Hirugarren aldiz Herriko Ostatua eta etxebizitza enkantean paratu zuen udalak, urriaren 23an Nafarroako aldizkari Ofizialean argitara eman ondotik. Lehen enkantean eman zen alokairuaren oinarritzko prezioa %10 merketu zen bigarreneako, baina hirugarren honetako enkantearen diru kopuruak bigarren enkanteak izan dira, hau da, 15.100 euroko kannon finkoa, 1.500 euroko fidantza eta 432 euroko oinarritzko hileroko alokairuaren prezioa. Azaroaren 7an itxi zen epea ostatua eta etxebizitza 10 urtetarako (aukerako 5 urtetako luzapenarekin) hartzeko eta ortzegun honetan udal batzarra egingen da. Datorren alean emanen dugu honen berri txoko honetan.

Kukubiltxo taldearen emankizuna

Ibintza Kultur Taldeak antolatuta 17:00etan, hasi zen Kukubiltxo Antzerki Taldeak Iturengo herriko plazan eskaini zuen Ekidazu antzezlan.

Hasieran, ordu erdi beranduago, 17:30etarako iragarrita bazegoen ere, urriaren azken asteburuan ordua aldatu ondotik arratsaldean lehenago iluntzen duenez, ordua aldatzea erabaki zen.



Argazkia: Iban Isasi

Jende ugari elkartu zen lan hau ikustera.

Aipatu beharra dago, azken urteetan, saio hau kontuan hartuta, hirutan egon dela antzerki talde ospetsu hau Iturenen haurrei zuzendutako antzezlanak aurkezten, eta aldi honetan ere ez zuela hutsik egin kalitatean.



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

GAZTANDEGIA

Lizun

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • **SUNBILLA**

DONEZTEBE

Auzitegi Nazionalak Enplegu Bulegorako deialdia baliogabetu du

Espainiako administrazioak euskara baloratu behar duela ebatzi du

ttipi-ttapa

Espainiako Auzitegi Nazionalak baliogabetu du Espainiako Enplegu Bulegoak (INEM) Doneztebeko egoitzarako zuzendari lanposturako 2001eko urtarriaren 12an ateratako lehiaketa, euskara ez baloratzearagatik. Erabakian, auzitegiako epaileek arrazoitzen dute estatuko administrazioak ere baduela bertako hizkuntzak baloratu beharra.

Hau da Espainiako Auzitegiak ematen duen gisa honetako lehen epaia. Helegitea LABeko Estatuko Administrazio sailak paratu zuen deialdia ezagutu eta berehala, eta sindikatuak erabakiaren garrantzia azpimarratu du. LABek bertze helegitea aurkeztua du arrazoi bera-
rengatik Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren aurka. Helegitea onartu egin du Espainiako Auzitegi Nazionalak.

EREMU EUSKALDUNEAN EUSKARA BALORATU BEHARRA

Lan deialdia Espainiako Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak egin zuen. Jakina, Doneztebe eremu euskaldunean dago, eta Euskararen Legeak, eta baita euskararen erabilerara arautzeko ere, 1994ko Foru Dekretuak zein 2000koak eremu euskaldunerako diren



ARTXIBOKOA

Feria eguna izanen da ortziral honetan Donezteben. Goizean aziendak ikusi eta saltzaileen postuetan zerbait erosteko –baratzuri kordaren bat, behar bada– modua izanen da. Arratsaldean, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko aizkora saioa izanen da. Nafarroarekin, Floren Nazabal, Donato Larretxea eta Mikel Mindegia lehiatuko dira. Gipuzkoarekin, Joxemiel Peñagarikano, Joxemari Olasagasti eta Anjel Arrospide.

lanpostuetan euskara baloratu beharra onartzen dute.

Sindikatuak argudiatu zuen bulego horretako lanpostu bakarra zela deitutakoa, eta euskara ezagutzea derri-
gorrezkoa zela. Estatuaren abokatuak, ordea, arrazoitu zuen bertako hizkuntzen balorazioa soilik elkargo autonomoen deialdietan egin behar dela.

Epaileek ez dute onartu jo administrazioaren argudioa, eta horra epaiketaren garrantzia. Beraz, eta erabakia

behin betikotzat bihurtzen bada, estatuko administrazioetako lanpostuetan ere bertako hizkuntzen ezagutza baloratu beharko litzatekeela erran nahiko luke.

Ondorio horretara iristeko, epaileek diote frogatutzat dagoela Doneztebeko bulegorako pertsona bakarra dagoela, eta jendeari begira egin behar duela lan. Nahiz eta epaiak dioen publikoari begira dau-
den lanpostu guztietarako ez dela derrigor euskara eskatu behar,

arrenkura azaltzen dio administrazioari, ez egiaztatzeagatik Doneztebe inguruan –lanpostua zonako ardura-
duna aukeratzeko zen-
euskarak duen presen-
tia. Hori dela eta, baliogabetzat jotzen du aipatu deialdia eta hurrengo deialdian euskara meritutzat hartze-
ko agintzen du.

LABek salatu izan du estatuko administrazioan euskarak duen tra-
taera, ez bakarrik ere-
mu ez-euskaldunean
edo mistoan, baita eus-
kaldunean ere.

LANA

Urrian 556 langabetu Doneztebeko INEMen

Urrian 556 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEM-en, irailean baino 21 guttiagok. Nafarroan, aldiz, goiti egin du urrian langabeziak, 151 pertsona gehiago baitaude lanik gabe, 17.666 guzira. Langabetuen adinari dago-
kionez, eskualdean 25 urtez behe-
tiko 39 gi-
zaseme eta 43 ema-
kume eta 25 urtez goi-
tiko 180 gizon eta 294 emakume zeuden lan-
gabezian urrian. Sek-
toreka, zerbitzu arlo-
an zeuden langabetu
gehienak, 322 pertso-
na, industrian 148,
eraikuntzan 36 eta ne-
kazaritzan 8, aitzine-
tik lanik egin gabeko
42 langabetuekin ba-
tera. Urrian 444 kon-
tratu berri egin ziren
eskualdean, baina hori-
etatik 49 bertzerik ez
ziren mugagabeak izan.

FLASH

Bear Zana Ehiztari Elkarte

Jose Diego Sarratea, Mariano Sapuppo, Tomas Sanz, David Mindegia eta Peio Arregik osatzen dute urriaren 31tik aitzinera Bear Zana ehiztari elkarte-
ko zuzendaritza batzordea. Martin Arretxea eta Luis Martin izanen dira ordezkoak. Azken urteetan lehendakari izan den Santi Oiartzabalek, be-
raz, erreleboa eman du.

KULTURA

Mendialdeko Abesbatzen Topaketa Leitzan egingen da azaroaren 17an

Bederatzi abesbatzek eta 260 kantarik parte hartuko dute

Mikel ILLARREGI

Asketa Abesbatza-ren eskutik, azaroaren 17an Mendialdeko abesbatzen topaketa burutuko da Leitzan. Topaketa hau, koruen harremanak estutzearen sortutako ekimena da eta urte batzuek topaketarik antolatu ez den arren aurten ohitura berreskuratzea erabaki da; eta ez gainera nolanahi, 9 koru elkartuko baitira.

Topaketa hauen has-tapenetan 4 koru ber-terik ez ziren parte har-tzaileak, Leitzako As-keta Abesbatza, Altsa-suko Erkudengo Ama, Lesakako Abesbatza eta Etxarri Aranzeko Abesbatza. Ondoren Berako Abesbatza eta Lizarrako Ereintza Abesbatza elkartu ziren eta aurten berriz hiru ki-de berri ditugu, Igantzi-ko Abesbatza (lehendik konbidatu gisa parte har-tua da), Bortziretaiko Gil-tzarri Abesbatza eta Do-neztebeko Mendi Abes-batza; guztira 9 koru eta



ARTXIBOKOA

Asketa Abesbatzak mendialdeko bederatzi koral bilduko ditu igandean.

260 partaide izanen di-ra.

Aipagarria da urte ba-tzuetako geldialdi hori zergatik izan den jaki-tea. Hasieran, Nafarro-ako Abesbatzen Elkar-teak diru zati bat jartzen zuen baina gero iturri hau moztu zen eta oso garesti ateratzen zen honelako antolakuntza bat. Beraz, urte batzuek

topaketarik ez da egin. Hala ere, badirudi aur-ten koruen desplaza-menduetarako diru la-guntza izanen dutela (oraindik ez dirurik ez-ta ziurtasunik ere ez da-goien arren) eta topa-keta berreskuratzeke la-nak hasi dituzte, aurten Leitzan eta hurrengo ur-teetan jarraipena ema-teko asmoz.

Egitaraua hau izanen da:

11:00etan Meza Na-gusia izanen da eta ber-tan 9 koruek batera 3 kanta eskeiniko dituzte. Meza ondoren kontzer-tua hasiko da eta ongi etorria emateko Leitzako Asketa Abesbatzak bi abesti eskeiniko ditu. Ondotik, partaide ber-rien txanda izanen da:

Giltzarri Abesbatza, Igantziko Abesbatza eta Doneztebeko Mendi Abesbatza.

Jarraitzeko, lehendik ere topaketetan parte hartu dutenen txanda izanen da eta orden honetan arituko dira: Altsasuko Erkudengo Ama, Lesakako Abesbatza, Urgain Abesbatza (Etxarri Aranzeko), Berako Abesbatza eta Lizarrako Ereintza Abesbatza. Azkenik, berriz ere koru guztiek batera lau kanta eskeiniko dituzte.

Kontzertuaren ondo-ren, eta euskaldunok ohitura dugun moduan, partaide guztiek bazka-ria izanen dute eskola-ko jangelan eta bazka-losteke abestiak eta kan-tak ere ziurtatuta dau-de noski.

Koruak eta abestiak gustoko dituzuenek gal-du ezin dezakezuen kontzertua da, beraz ba-dakizue datorren igan-dean 17 etor zaitezte Leitzako elizara.

616 513 491

Pititi

ESKABAZIOAK

(C/Amelia)

31011 DONEZTEBE (NAFARRA)

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA

MARTXO BITARTEKO ESKAINTZA

Eguzkitik babesteko toldo 1 erosiz gero, %10 merkeago

☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK

ERA GUZTIETAKOAK, MOTORIZATUAK, MOSKITERAK eta VENECIANAK

gaztelu

iturgintza

kalefakzioa
saneamendua
gasa

☎ 948 510086 / 510156

fax: 948 610856

LEITZA



Bortzirietakoazienda onenak sarituko dira

- Ortzegun goizekoazienda lehiaketan zaldiak nagusitu dira urteotan
- Asteazkeneko Merkatu Egunean ajoarriero lehiaketa eta trikitixa

Udazkeneko azken ferien txanda ailegatu da. Asteazkeneko bortzehun urteotan bezala, Bortzirietako feriak egingen dira Lesakan. Asteazkenean, azaroaren 27an, Merkatu Eguna egingen da. Ez da azien-
darik ikusiko egun horretan plazan, baina feriantek biharamonerako lekua hartzen hasiko dira eta arrats partean, plazan musika eta Herriko Etxeko arkupetan ajoarriero lehiaketa izanen dira, azken urteotako ohiturari eutsiz. Egun handia ortzeguna

izanen da. Inguru honetan, plazara azaltzen diren aziendak saritzen dituen feria bakarra da Lesakakoa. Azken urteotan zaldizkoa gailendu da, baina esne eta haragitako behi batzuk edo aharikoren bat edo bertze ikusteko modua ere izaten da plaza inguruan. Horretaz gain, plaza barnean bertsolari-
ek eta aizkolariek euren abildadeak erakusteko modua izanen dute. Bazkalondorako pilota partidak eta musika izanen dira.



ARGAZKIA: GOIKO

Ola baserria, ur azpian gelditu zirenetako bat.

San Antongo presaren eraikuntza Endara auzoko baserri batzuk urpean gelditu zirenekoa

Ez dakigu duela hamabortz-hogei urte Endara auzoko Ola, Borda eta Endaraborda baserrietatik aziendak eramaten ote zituzten ferietara. Bide haundia dago Endaratik plazara eta ez zuten, seguruenik, ho-

nelako lanik hartuko. Aurten, seguru ez direla izanen, San Antongo presa egin zutenean desagertu baitziren. Ola eta Borda ur azpian gelditu ziren. Endaraborda, al-diz, ez zuen urak hartu, baina Idoizin baserria-

ren gainekaldean obretarako harria ateratzeko erabili zuten harrobia-ren hurbil zegoenez, utzi egin behar izan zuten bertako bizilagunek.

Bere garaian, hauts dextente harrotu zuen presaren gaiak eta ttipi-

ttapan ere bildu ziren horri buruzko artikulak. 1983ko neguan, "San Antongo uharkataz" izeneko erreportaia honako kronologia azaldu zen: «1973an Irungo Udalak Madrilgo gobernuarekin tratua ixten du

eta estatuak bere gain hartzen du Irun eta Hondarribiko uraren arazoa; trukean Irunek ematen ditu bidesariko kanon baten eskubideak.

Hiru aukera ikusten dira: Bidasoako ura proieixtea, Uhaldeko uharka eta San Antongoa. Behar diren ikerlanak egin da, San Antongo uharka dela soluzio egokiena erabakitzen da.

Kontutan eduki behar dugu lehendabiziko pausoak frankismoren garaian ematen direla. Berehala Irungo udalak des-

Etxeberria
Ostatua



Plaza Zaharra
☎ 948 637700
LESAKA

ORNOZ
ARGAZKIGINTZA

Plaza Zaharra 11
LESAKA
Tel-Faxa: 948 637593

★ **IZARRA** ★
OKINDEGIA

Ongi pasa ferietan!

Plaza Zaharra, 13
☎ 948 63 78 55 • LESAKA

jabetzera jotzen du eta honek baserrietan eta Lesakako herrian uharkaren aurkako mugimendu bat sortarazten du. Lesakan afera honentzako batzorde bat biltzen da. San Antongo erromerian, orokorki, eta batez ere Irungo auzoei begira, elkartasunera dehiadar egiten da.

Udal "demokratikoak" hautatzen direnean, Irungoak, Lesakako Udalaren jarrera gogorra ikusita eta herriaren kontra neurririk hartu nahi ez duelako, desjabetzea baztertzen du. Baserritarrekin tratoak hasten dira, eskeintzak egokiak dira, eta uharka begi onekin ikusten hasten da. Hona hemen ukituak diren baserriak: Idoizn, Ola, Borda Endara, Endara Borda, Dorrea eta Garai-ko Etxea.

Lesakako Udalak dio, baserritarrekin tratoak ixten badira, berak ere herriko lurrak eta lanaren baimenak emanen dituela. Irungo Udalak Lesakakoari, ordainetan 7.000.000 pezeta eta Domiku eta San Martzial inguruetan lurrak trukatzeko hitza ematen dio.

Horrela irixten gara gaurko egunetara. Afera geldirik dago, nahiz aintzinduak izan, baserritarrekin tratatuak noiz bukatuko diren zai». Lanak akautzeko urte terdi edo bi urte joanen zirela eta bertze ezaugarri tekniko batzuk emanez akautzen zen artikulua.



ARGAZKIA: GOIKO

San Antongo presa egiteko lanak.

San Antongo baseliza

Garai hartan erdi erorian zegoen San Antongo ermita. ttipi-ttaporen 17. zenbakian, 1986ko urrian gai honek sortzen zion kezkar buruz aritu zen Antton Erkizia kazetaria.

XVI. mendean zutik omen zen baseliza. 1613. urtean auzotarrek negu parteko igandetako meza bertan ematea lortu zuten. 1679ko dokumentu batean ere berriz azaltzen da, bestatan ahari eder bat hil eta jaten zuten auzotarrek ermitan bertan santuaren eguna ospatzeko. Eta Lesakako elizak debekatu egin zien ermita barruan holakorik egitea. 1924. urtean erre egin omen (sua eman egin zioten) eta orduko eliza kixkalduaren gainean berri bat altxatu, Felix Etxeberri erretore zela.

«Gaur egun afera zera da—zioen Erkizia—uharka edo presa batek irentsiko duela oso laister hango zoko hura, larre, landa eta baserri. Etxe berriak eraiki dituzte gorago. Eliza edo ermita, ordea, uraren muga-mugan geratuko da. Ia gaurko erdi eroria, ez dut uste egoera berriaren enbata jasateko gai izanen denik». Zorionez, ez zuen iragarpenean asmatu.

Juanjo ERRO

ZURGINDEGI LANAK OROKORREAN
MOBLE ZAHARREN KONPONKETA
AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Alan-Zahar, ☎ 948 637862 • LESAKA



948 631188



ALMACENES ETXANIZ, S.A.



- Sukaldeak
- Bainuak
- Iturgintza
- Kalefakzioak
- Gasa-gasoila
- Griferiak
- Mobleak
- Manparak
- Hidromasajea
- Osagarriak

ERAKUSKETA
Juan Arana, 1

Tfnoa. 943 61 17 67
Fax: 943 61 44 64

IRUN

BILTEGIAK
Juan Arana, 3

LEITZA

Ostalaritza goruntz

Mikel ILARREGI

Askotan komentatu izan da herrian behar adinako tokirik ba ote den bazkari edota apariren bat egiteko. Gauza bera gertatu izan da lo egiteko, herriak eskain dezakeen aukerarekin. Banan bana ikusi ditugu eta bestelako ondorioak atera daitezkeela ikusi dugu. Batez ere, orain industrialdean zabaldu den zerbitzu berriarekin.

Zazpi dira guztira, ostatu edota jatetxe moduan kontsidera daitezkeenak. Orain dela gutxi arte Torrea elkarteak ere bazuen jatetxe zerbitzua,

baina orain, momentuz behinik behin, egoera erasokorra argitu arte, hutsik gelditu da. Hauek guztiak, zenbatentzat duten tokia batuz gero, 650 baino gehiagorentzat izan daitezkeela ikus dezakegu. Lo egitekoa berriz hauetako hiruetan eskeintzen da, 84 pertsonentzat guztira. Guztiek, kartaz gain, astebarruko eta asteburuko menua eskaintzen dute.

Hauetaz gain, dudarik gabe, otartekoak edota gosariak eskaintzen dituzten tabernak daude, noski. Inor aipatu gabe gerta ez dadin, ostalaritzako beste zerbitzuok eskaintzen dituzten izenak: Nekane, Bikoitz, Gaztañaga, Txoko, Adur, Landa, Leitza-rra, «Jubilatuena», Zortziko, Torrea eta zabaldu berria den Okabio taberna. Hiru mila biztanlera iristen ez den herri batentzat nahikoa, ezta?



MUSUNZAR

Noiztik zabalik:
1996
Zenbatentzat:
55-60
Menua astez: 7 €
Menua asteburutan: 9 €
Lo egiteko:
24 pertsonentzat



BASAKABI

Noiztik zabalik:
1967
Zenbatentzat:
140 edo 200 (ezkontzetan)
Menua astez: 9-15 €
Menua asteburutan: 15 €
Lo egiteko:
30 pertsonentzat



ERREKA sagardotegia

Noiztik zabalik:
1996
Zenbatentzat:
80-90
Menua astez:
7,80 €
Menua asteburutan:
9 €
Lo egiteko:
-



SAGASTI

Noiztik zabalik:
+/- 1970 (1996*)
Zenbatentzat:
60-70
Menua astez:
7 €
Menua asteburutan:
9 €
Lo egiteko: -

* Oraingo erabiltzaileek emandako datua



ARAKINDEGIA

Noiztik zabalik:
+/- 1925
Zenbatentzat:
60 + 12 (gela berezia)
Menua astez:
8 €
Menua asteburutan:
10 €
Lo egiteko:
-



LANDA

Noiztik zabalik:
2002-X-11
Zenbatentzat:
100-110
Menua astez:
8 €
Menua asteburutan:
18 €
Lo egiteko:
30 (13 gela + 2 suite)



OIALDE

Noiztik zabalik:
+/- 1960 (2002-I-5)*
Zenbatentzat:
80
Menua astez:
6 €
Menua asteburutan:
12 €
Lo egiteko: -

* Oraingo erabiltzaileek emandako datua

Maxurrenea?

Kultu Etxearen aldeko erreibindikazioeta festa eguna antolatu da azaroaren 24rako

Aurreko zenbakian aipatu genuen moduan, azaroaren 4tik aurrera Maxurreneko areto batean egiten ziren erakusketak eten egin beharizan dira, Nafarroako Gobernua-ren eskutik Barne Ministeri-

tzara pasatu baita. Gogorazazi behar da, Maxurrenea Kultur etxea eskatuz, 1564 auzoen eta 38 talde ezberdinetako sinadurak bildu zirela. Horretaz gain, mila lagun baino gehiago kaleratu ziren al-

darrikapen hau eginez. Bestetik, ekainaren 11z geroztik hamabostero erakusketa bana izan da ikusgai (orain beste zortzi hitzartuak zeuden).

Orain, sinaturiko taldetako ordezkariak bildu dira eta festa-erreibindikazio eguna antolatu dute azaroaren 24rako. Hau idazterakoan xehetasunik ez badugu ere, antolatzailleek adierazi digutenez, egun honetan herriako talde gehienek (musika eta kanten inguruko pertsonak nahiz tal-

deak, herri kiroltako ordezkariak, kultur eta gastronomi elkarteak...) egun «berezi» bat antolatu nahi dute. Hauek guztiak bat eginez, herriko kafeak, zinema, plaza... «Maxurrenea=Kultur etxea» aldarrikapena azaldu nahi dute. Festa giroa ezarri. Egundak honetarako elkarrekin eginiko idatzia ere kaleratu nahi dute. Hau azaltzeko prentsaurrekoa ere egingen dute. Dena den, jendearen partehartzea nahitaezkoa ikusten dute.

GOIZUETA

Hirurogeigarren hamarkadaz jantziko da herria azaroaren 23an

Maidar Ansa eta Dronadar-en txanda izanen da 29an eta 30ean

Esteban AROTZENA

Antolatzaileek uste duten bezalako erantzuna jasotzen baldin badu, hurrengo larunbatean zortziko, azaroak 23, ekimenak, edeki aski aldatuko du herritarren itxura, ilunabarreko poteoan aurrena eta Umore Onan egingen den afarian gero. Dagoeneko gehienek igeriko zuten bezala, egun horretarako Gazte Asanbladak luzatu duen deialdiaz ari gara, 60. hamarkadako itxurarekin jantzi eta gau osoan garai haietako musikarekin dantzatu eta gozatzeko gonbiteaz ale-

gia. Afarirako txartelak Urrutinean eta Amaia-renean daude salgai hilaren 17a arte eta elkartera joateko baldintza bakarra mozturrotua egotea da.

Maidar Ansa eta Dronadar

Azkeneko TTIPI-TTAPAN aipatu genuen bezala, azaroako asteburu guztiak kultur ekitaldiz bete dira. Aurrena orotarazi larunbat honetan, hilak 16, Pello Zabala izanen dela Ganbara Kultur Aretoan 19:00etatik aurrera. Hilaren azken asteburuan berriz, bi ekitaldi ospatuko di-



ARGAZKIA: XABIER ETXEGIA

Zaharren Egund eder bat antolatu du Umore Onak aurten ere. Argazkiko hauek dira trukeko eta museko txapelketetako saridunak.

ra: ostirala 29an, Maidar Ansa eta bere ahizpen emanaldia 20:00etan Ganbaran; eta larunbata 30ean, musika zeltiarra jotzen duen Dronadartaldearen kontzertua gaueko 12:00etan Gaztetxean.



Anttoniko Apezetxeak eta Anttoni Eskudero ospatu berriak dituzte beraien Urrezko Ezteiak. Bederatzi seme-alaba izan ditu bikote honek. Beste zortzi biloba ere badituzte gainera gaur egun.

ARESO

Bi egunetan gozatu ederra hartu dute herriko uso ehiztariek

40-60 uso artean postu gehienetan

Juana Mari SAIZAR

Udazkenean murgilduta gaude eta garaian garaikoak, esaera zaharrak dioten moduan. Uso ehiza denboraldia izugarria izan omen da aurtengoan, bi edo hiru egunetan. Aspaldi ikusi ez den bezalakoa, ikaragarritzko uso pasa eta ehizatze moduan gainera. Gozatu ederra hartu dute Aresoko mendietako ehiztariek. 40

eta 60 uso tartean bota dituzte postu gehienetan.

Gaztain jatea

Gaztain jatea egin zuten azaroaren 2an Guraso elkarteak antolatuta Pake-Toki elkartean. Gaztain erreak, odolkia eta txistorrarekin bap jan omen zuten.

Kanposantua

Santu Guzien egu-



ARGAZKIAK: JUANA MARI

Tafallako Tubala Uxo abesbatzak emanaldi ederra eskaini zuen elizan. Ondoan, kanposantua.

nean izugarri polita zegoen kanposantua. Eguraldi onak lagunduta otoi bat egin zuten han bildutakoek, han dauden animen alde.



EZKURRA



ARGAZKIA: PEIO ZESTAU

Argazkian Matxonea etxea arreglatua ikusten da. Indianon batek egina omen da.

Pistak moldatzen hasia da Leitzako Juarbe enpresa

Peskonea, Ibia eta Iruinera doazenak konponduko dira

Pello ZESTAU

Hasiak dira arreglatzen Peskonea, Ibia eta Iruin aldera doazten pistak. Nafarroako Gobernuak hirurteko plangintzan onartua duen obra hau, Leitzako Juarbe, S.L. enpresak eginen du. Dena den, bazen ordua, egoera kaxkarrean bait zeuden.

Etheen apainketa

Azken hilabete hauetan, hainbat etxetan obrak egin dira, bai teilatua eta bai kanpoko

paretak arreglatzen. Hauen artean, Matxonea, Barbenea, Etxenea eta Baztanea dauka.

Uso garaia bukatu da

laz bezala, aurtengo ere ez da izandu uso urtea. Ikusten denez, usek itsas aldeko bidaia hartu omen dute. Bakarren bat 30 usotara hurbildu bada ere, beste batzuk ia ia estrenatu gabe gelditu dira. Hurrengo urtean behar harko...

BAZTAN

Kulturen arteko harremana futbol partidarekin indartu dute

Ekuadorko jokalarien kontra aritu ziren baztandarrek

ttipi-ttapa

Baztango talde ezberdinek osatzen duten kulturen arteko harremana bultzatzeko plataformak Domisaindu egunean antolatutako futbol partidak jokatu ziren Giltxaurdi futbol zelain. Baztanek irabazi zuen txapelketa, Ekuadorko etorkinek osatutako taldeari 6-0 irabazi eta Baztango jubentilek eta jokalariek osatutako taldearekin husna berdindu ondoren. Hauek 4-0 irabazi zioten Ekuadorko jokalariei.

Zelai gaineko giro ona harmailetan erasotu zen eta kultura ezberdinak ezagutzeko baliagarria izan zen. Plataformak ekitaldi gehiago iragarri ditu abendurako.

Baztandarren Biltzarra

Azaroaren 16rako deitua zuen Baztandarren Biltzarrak etorkizunari buruz solasteko batzarra. Azaroaren 23ra gibelera dute, 19:00etan Arizkunenean.



BAZTAN IKASTOLAK UTZIA

Azken urteotan bezala, Baztan Ikastolak Elizondoko ferietan pottoka baten zozketa egin zuen. Ikastolako haurrak, aitzineko hiru astetan, txartelak saltzen ibili ondoren gurasoen laguntzarekin Feria egunean ekintzari akabaila eman zioten. Amets, Miren, Nagore eta Oihanak zenbakiak ateratu zituzten, zortea 2350 zenbakiari emanek. Aurtengo behorra ernari zegoen eta Joxe Goienetxeri erosi zitzaion. Sari bikoitz hau Berroetako M^a joaquina Eraso Habans-eri egokitu zaio. Zorionak!

Okindegia

Jatetxea

Uxo

OKINDEGIAN

- Ogi artisauna, egunekoa eta txapeta

JATETXEAN

- Menua eta karta (asteburuetan)
- Especialitate parrilari erretako jakietan

Orduak: 10:00 - 14:00 - 18:00 - 22:00

Orduak: 10:00 - 14:00 - 18:00 - 22:00

Orduak: 10:00 - 14:00 - 18:00 - 22:00

ANTXIOTONEA

Trinketea

Jatetxea - Ostaturia

Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte

ELIZONDO

© 948 581807 • 948 581853

BAZTAN

Hogeita bortz urte bete ditu Amaiurko Gaztelu Elkarteak

Gan den larunbatean meza, kantuak eta bazkaria izan zuten

ttipi-ttapa

Hogeita bortz urte bete ditu Amaiurko Gaztelu elkarteak. Hori dela eta, gan den larunbatean ospakizun egun berezia izan zuten. Goizean, hil diren bazkideen omenezko meza izan zuten. Ondotik, monolitoan oroigarriako argazkia atera zuten eta Amaiurko Gaztelu kantarien saioa izan zen. Gero bazkaria egin zuten elkartearen. Bazkari honetara ahalik eta jende gehiena biltzeko, bazkide guzkiek paratua zuten dirua, gan edo ez gan. 1977an sortu zenean 45 bazkide zituen Amaiurko Gaztelu elkarteak eta gaur egun 65 ditu. Hogeita bosgarren urteurrena ospatzeko ez dute, momentuz, bertze ekitaldirik prestatu.

Izpegiko VI. Moto Igoera

Azaroaren 1ean jokatzen izpegiko VI. Quad eta Moto Igoera, Nafarroako igoera txar-



ARGAZKIA: BEGOÑA AGERREBEREK IGORRIA

Irailaren 17an ospatu zuten Urrezko Eztaiak, 50 urte ezkontuta, Erratzuko Cecilio Etxart eta Juana Gamiok. Argazkian kontent ageri dira beraien zazpi bilobekin.

pelketarako baliagarria. 125 cc bitarteko motoetan, Jesus Corrales nagusitu zen, Xabier Villanueva eta Jose Maria Mikelperizenaren aitazinetik. 250 cc bitartekoetan, Pablo Mutiozabal izan zen bizkorrena, Pedro Aristu eta Roberto

Lainez giblean utzita. Goi zilindradatan, Jose Ignacio Anzisarizan zen garaile, Jorge Moreno eta Pedro Viedmaren aitazinetik. Quads-etan, Iñaki Irigoien «Txarandaka» beratarra izan zen azkarrena, Juan Mari Indakoetxea eta

Enrique Catalanen aitazinetik.

Izpegiko errepide bazterretan bildutako jende andanak istripu ausarki ikusi zituen, zola euriz bustia baitzen hasiera-hasieratik eta gero, erorien ondorioz, baita olio z bustia ere.



PERTSONAIA

Javier ITURRIA

Down Sindromeari buruzko nobela idatzi du Gartzainen sortutako idazleak

Duela 52 urte Gartzaingo Bentazaharrean jaio zen Javier Iturría Telletxea. Gero, familiarekin Elizondora gan zen bizitzera eta Lekarozko Kaputxinoetan ikasi zuen. Duela 30 urte Donostira gan zen eta emaztearekin arropa denda edeki zuen. Dena den, gaztetatik idazteko zaletasun handia du. Orain, Down sindromea duten bi gazteen gorabeherak kontatzen dituen nobela idatzi du, «¿Cuánto será noventa y nueve papá?» izenburua-rekin. «Gai polita da, baina tentuz landu beharrekoa. Pertsona hauek gabezi fisiko garbia dute, baina izakez arras jatorrak, atseginak eta sinpatikoak dira». Argitaletxe batzuk bisitatu ondotik, eleberria berak argitaratzea erabaki zuen. «Orain errexagoa da norberak liburua argitaratzea. Lehen guttienez milioi bat pezeta eskatzen zuten mila ale-rengatik, orain guttiagotan ateratzen da. Arauak aldatu dira eta horrek gure lana errazten du». Donostiako liburutegietan salgai paratu eta harrera ona izan du. Iruñera ere ekarri dute berriki.

FANTXIKE
Mertzena - Opariak
Lentzena
HAUR- GAZTE ETA
HELDUEN ARROPA
Jaime Urrutia 15, ELIZONDO
Tfn: 948 580 312

Gierreserena
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • **ORONÓZ-MUGAIRI**



SOULE
Hileta artea
Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



ZUGARRAMURDI

Azaroan hainbat kultur eta kirol ekitaldi antolatu ditu Kisulabe elkarteak

Pampi Olaizolarekin Etxalarko Usategietara mendi ibilaldia egingen da 23an

Margari eta Koro

Kisulabe elkarteak antolaturik azaroko asteburuetan zenbait ekitaldi kultural ikusteko aukera dugu.

Gan den larunbatean, azaroaren 9an, zinemari eskeinitako eguna izan zen. Hurrek "Karramarro uharte" ikusgai izan zuten eta gauean Zine-maratoia egin zen, lau filma bat bertzearen ondotik emanaz. Zinezaleek, beraz, gustoko gaua izan zuten.

Azaroaren 23an mendi ibilaldia egingen da Etxalarko Usategietara, Pampi Olaizolaren laguntzarekin inguruko onddo eta landareak ezagutzeko. Ondotik bazkaria izanen da Ixtiarteko bordan. Arratsaldean malabar tailerra



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mikel Dalbret margolari saratarraren lanak ikusgai izan dira uda osoan Narkonean. Orain, Pasai Donibane-ko Victor Hugo etxean jarria du bertze erakusketa bat. Beraz, herrian ikusi ez zenutenek kostaldera gan beharko duze gizon hunen lan bitxia ikustera.

eta erakustaldia izanen dira.

Azaroaren 30ean, gazteendako txanda izanen da. 20:30etan pla-

zan «Electrotuna» hasiko da eta ondotik kontzertua «Kinkinela» eta «Des+karada» taldeekin.

Dalbret margolariaren erakusketa

Mikel Dalbret margolari saratarrak uda

osoan Narkonean erakusketa atxiki ondotik, orain Pasai Donibane-ko "Victor Hugo etxean" jarria du bertze erakusketa bat.

Beraz, Zugarramurdikoa ikusteko aukera galdu zenutenek anima zaitezte Pasaira joatea, egiazki merezi duelakoz gizon hunen lan bitxia ikustea.

Kanposantuko hiltokiak

Herriko biztanle batzuk Kanposantuko hiltokiak eskuratzeko duten nahiak kontutan hartuz, Udalak azaroaren 24a arteko epea jarri du, zerrenda batetan izena emateko. Ondoren, eskaerak aztertu ondotik, behar diren neurriak hartuko ditu Herriko Etxeak.

GUTUNTZE
ICHE
GLES RES NE ES ELN TE SL

TANATORIO BAZTANDARRA
Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta Zugarramurdin
24 orduko zerbitzua tanatorioan
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959
☎ 900 704704

BURKAITZEA
ostatu
erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.
☎ 948 599280 • URDAZUBI

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

Esiskaroi
jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

Parrilan egindako
haragi eta
arrainak

ONASKA
ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • **ELBETE**
☎ 948 45 20 88

SENPERE

Quebec-en presentatuko bere lehen diska Hegalka taldeak

Cyber-gunea hestekotan da zailtasunak direlaketz langile bat hartzeko

Franck DOLOSOR

“Hain hurbil hain urrun” izena du Agorila disketxearen eskutik Hegalka talde berriak argitarat eman duen lehen diskak. Uztaritzeko Euskal Kultur Erakundearen Kantuketan programaren inguruan sortu da Hegalka taldea Iparaldeko kantari belau-naldi berriaren doihak ezagutarazteko xedea-rekin. Argazkian ikus ditazkizue Magali Zubillaga aldudar-senpertarrak eta Christian Amorena saratar musikariak parte hartzen dute abentura huntan, bertze lau kantari eta hiru musika-

rirekin. Ikusgarri bat muntatu ondoren, orain diska plazaratu dute hamabi kantu hunkigarri-rekin.

Hegalkak zonbait kontzertu eskainiko ditu heldu diren hilabete-etan eta bere diska haundizki presentatuko du abenduko Durango-ko azokan. Talde berri hau Atlantiko itsasoa bertzalderat ganen da otsailean Euskal Herria ezagutaraziko baitu Montrealgo festibal ospetsu batean.

Cybergunea hestekotan

Duela bi urte Pots d'é-

changes elkartasun batasunak muntatu zuen internet-gunea hestekotan da zailtasun haundiak direlaketz langile berri bat CES kontratupen lanean hartzeko.

Elkarte huntako lehen langilea lanean hasi da bertze toki batean eta orain talde hunek ezin du langile berririk hartu. Norbait interesaturik bada alta, lana mihatzen duen 29 urteko gazte bat hain xuxen bainan eskuineko gobernamendu berriarekin ez da gehiago errex-tasunik langileak hartzeko. Sozialistek sortu zituzten gazte enple-



Hegalka taldea.

guak desagertu diren bezala, CES kontratuek ere bide bera hartuko dute itxura guzien arabera. Ez da deus segurrik momentuan eta hortako, Cyber-guneak bere ateak hetsiko ditu hazilaren 30a arte.

Gero abenduaren 2an, berriz zabalduko da internet elkarte baina 20an ez bada deus aldatu betiko hetsiko da. Cyber-guneak 140 kide ditu.

Arratsalde moxorrotua

“Arratsalde moxorrotua” ospatu zuten 26 haurrek eta 10 helduk gan den urriaren 29an. Gero eta jende gehiagok Halloween Irlandar besta ospatzen duelarik senpertar batzuek nahiago izan dituzte haurrak moxorrotu arratsalde batez jokoak egiteko. Krakada izan zuten gero Herriko Etxeak eskainirik.

SARA

Sasoin txarra izan da uso ihiztariantzat

Pleka trinketeak pala txapelketa antolatu du

Xan HARRIAGUE

Sarako sareak urriaren 4ean hedatu zituzten eta altxatu, heldu den urterako azilaren 3an. Ihiztarien erranean sasoin txarra izan da, haize hegoak geldid geldia jo duelako kasik hilabete osoa, eta aski ezaguna da saretako ihizian haize hegoa ez dela lagun bat. Pasaia haundiena urriaren 28an pasatu zen, sortaldeko

haizea zutelarik, beraz, ihiztariak jostatu ziren ongi baita uso pixkat ere bildu. Urte guziz bezala, Euskal Herriko saretako ihizi guziak, Etxalar, Sara, Aldude, Lekunberri, Behorlegi, Suhuskune, Oskaxe, Urdiñarbe (Napal eta Gatagorren) eta Lane, bilduko dira, bil lan bat egiteko eta bakoitxen esperientziak kontatzeko. Egun hori abendua-

ren 7an iraganen da eta Aldudek errezibituko ditu.

Pala Txapelketa

Negua hurbiltzen ari dela eta, Pleka trinketeak bere urteroko pala txapelketa antolatzen du. Beti bezala 4 maietan zatituko da eta izenak eman beharko dira abenduaren 4a baino lehen, izen emaita 25 eurokoa da.



Herriko errugbilariek irabazten segitzen dute

Sarako esku baloneko neskentzat aldiz sasoina ez da hain errexizanen, Urriaren 26an helduek guttitik galdu egin zuten Asperen kontra 16eta 20. Hamabost urte azpiko taldeak galdu egin zuen ere Hendaiairen kontra 28 eta 5. Publikoaren indarra beharrezkoak dituztelako momentu zail horietan hala noiz arituko dira Saran. Helduak azilaren 23an Donibane Lohitzuneren kontra eta abenduaren 14ean Asperen kontra. Helduen matxak arratseko 8etan iragaiten dira. Gazteak berriz, azilaren 23an Saran jokatuiko dute Kanboren kontra eta abenduaren 7an Hendaiairen kontra, gazteen matxak arratseko 6etan izaten dira. Umia sainduko aste undarrea pausako izan zuten eta ez ziren aritu.

NAFARR AK
RUR I KUTXA

AZKAIN

Gaztain gaua antolatzen du Orduan elkarteak ortzirale huntan

Errugbi taldeak lehen aldiz galdu du, baina lehenbiziko segitzen du

Ihintza, Angela eta Eneko

Aratz Gomezen atxilotaren hirugarren urtemuga dela eta, gaztain gaua antolatzen du Orduan sostengu elkarteak azaroaren 14an Bil-Tokin. Ostatu giro batean gaztain goxoak jasatzerat gomituak dira senideak, lagunak eta herritarrek ere bai.

Aratz 1999ko azaroaren 20an atxilotua izan zen Irunen. Geroztik Alcala Meco kartzelan egon zen 2 urtez. Epai-keta 2001eko abenduan egin zen eta 18 urteko zigorra hautatu zuen epaileak. Badu kasik urtea Asturietako Billabona presondegian ezarri zutela. Epaietaren ondotik dei egiteko erabakia hartu zuen eta epaietaren zai dago orain.

Errugbian galdu

Hermen kontra lau garren garaipena lortu bazuten ere, azaroaren 3an Kanbon 11-6 galdu zuten errugbilariek. 6 puntuak Viquendik sartu zituen. Lehen aldia

da beraz garaipena ez dutela lortzen sasoin huntan. Hala ere taldean lehen jarraitzen dute herritarrek. Jokolari batzuek diote galtzeak ondorio onak izaten ahal dituela, Kanboko taldea faboritoetan dela eta matxa ona egin zela haien aurka.



Toniren Lagunak Arrano Xolaren inguruetan bildu ziren gaztainondo baten landatzeko bere orroitzapenez. Urriaren 27an antolatua zen ateraldia eta argazkian ez badira denak ikusten ere 70 bat jende bildu zen ekitaldian.



Urrian liburutegiak animazio ugari antolatu ditu, haurrentzat bereziki. 9tik 24ra erakusketa muntatua izan zen denentzat eta 3. zikloko haurrek animazioak proposatu zituzten ere. Urriaren 19an ordu bateko ipuin kontaketa bat, osoki euskaraz, proposatua izan du 4-6 urtekoentzat eta egun berean marrazki lehiaketa bat antolatua izan zen. Gaia: zirko ikusgarri bat marraztu. Irabazle bakotzak (4orotarat) zirkorat joateko txartela bat irabazi zuen. Bertze guziek (berrogoi bat) beren parte hartzearen agiria izan zuen.

FLASH

Mendi talde berria sortu da

Duela bi hilabete mendi talde bat sortu da herrian. «Ibiltzaile» izena hartu du eta astero ibilaldiak antolatzeko asmoa du. Azkain inguruan eta etorkizunean urrunago ere egingen dira ateraldiak.

Santa Xexiliren meza

Azaroaren 24an Santa Xexiliren meza egingen da Azkaingo elizan eta eskualde desberdinetako abesbatzek kantak eskainiko dituzte.

Martintxo 22an

Martintxo kantu taldea azaroaren 22an bilduko da herriko ostatu batean hilabete guziz bezala. Euskal kantuen ezagutzerat eta kantatzerat gomitatzen du jendea.

Elkarretaratzeak larunbatetan

Orai arte hilabetean behin egiten ziren elkarretaratzeak larunbat eguerdietan egingen dira. Ondoko hitzordua Azaroaren 30an finkatua da. Lema berdina gelditzen da: Denon artean Euskal presoak Euskal Herrira.

ZOANSA

SEAT Audi Volkswagen SALMENTA

MARKA GUZIEK KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA (Sarrera Beratik)

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza

Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA

Ibardingoa Lepoa

☎ 948 631209



EZKONTZAK

Jesus Maria Auzmendi Gonzalez eta **Maria Kizkitza Alba Salaberria**, Beasain eta Goizuetakoa, urriaren 12an.

Valeriano Arratxea Apezetxe eta **Miren Arantzazu Sagastibeltza Sagastibeltza**, Iruñita eta Elizondokoa, urriaren 19an.

Ignacio Joaquin Itoiz Goñi eta **Sonia Reina Etxarri**, Burlatakoak Almandozen, urriaren 19an.

Angel Alberro Arrizabalaga eta **Albertina Gonzalo Gonzalez**, Elizondo eta Iruñekoa, urriaren 26an.

Alfonso Fernandez Perez eta **Maria Edurne Begiristain Zelaieta**, Barañain eta Iruñekoa, Lekarozen, azaroaren 2an.

Berton Benoit eta **Raphaelle De Vos**, Sarakoak, irailaren 27an.

Robert David eta **Maitetxu Leizagoien**, Sarakoak, irailaren 28an.

Xabi Zunda eta **Eliane Lacategnerat**, Sarakoak, urriaren 26an.

Antonio Elizalde Loiarde eta **Estibaliz Mitxelena Erasun**, Zubietakoa, urriaren 26an.



SORTZEAK

Maider Azurmendi Sagastibeltza, Leitzakoa, urriaren 16an.

Eñaut Zubiri Arburua, Leitzakoa, urriaren 19an.

Beñat Erro Muxika, Elizondokoa irailaren 5ean.

Oier Erro Muxika, Elizondokoa, irailaren 5ean.

Javier Etxalar Altzuguren, Berakoa, urriaren 18an.


Zuhaitz Bazterrika Maskotena, Urdazubikoa, urriaren 7an.

Emma Agerralde Benak, Zugarramurdikoa, urriaren 31n.

Amaia Mundutegi, Sarakoa, irailaren 17an.

Andoni Ibarra, Sarakoa, irailaren 19an.

Aizpea Lejardi Rigou, Baionakoa, urriaren 14an.



HERIOTZAK

Ramon Andueza Errazkin, Lesakakoa, urriaren 27an, 58 urte.

Pedro Santesteban Gorosterrazu, Zubietakoa, azaroaren 4ean, 74 urte.

Ramon Elizondo Elizondo, Arantzakoa, azaroaren 4ean, 72 urte.

Josefa Irigoien Gamio, Zigakoa, urriaren 27an, 79 urte.

Antonio Ariztegi Bengoetxea, Elizondokoa, urriaren 28an, 77 urte.

Koxe Pernaute Telletxea, Saran, irailaren 22an, 88 urte.



**Joseba
GESTAU JUANTORENA**
I. URTEMUGA

Meza abenduaren 1ean
emanen da, eguerdiko
12:30etan
Ezkurrako Elizan.

Bere ama eta familia.



**M^a Jesus
BALEZTENA MITXEO**
I. URTEMUGA

Beti gure bihotzean
egonen zara.

**Imanol, Andrea
eta Doneztebeko familia.**



Èskela eta eskertzak
948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin)
63,10 € ordaindu behar da
Rural Kutxako
3008 0080 53 0703304626
kontuan sartu eta
justifikantea **ttipi-ttapara**
igorri faxez edo postaz,
argazkiarekin eta sartu nahi
den testuarekin batera.

HERRI KIROLA

Nafarroak Zazpi Herrialdetako txapelketa irabazi zuen urriaren 26an Beran

Fernando Etxegarai beratarrak Euskal Herriko marka berria egin zuen koxkor biltzen

Aitor AROTZENA

Nafarroak irabazi zuen urriaren 26an Beran jokatu zen Zazpi herrialdeetako herri kirol txapelketa, Gipuzkoa eta, batez ere, Bizkaia-ekin lehia estua izan ondotik. Txapelketa honetan ez zen Zuberoka aritu, ez baitzuen talderik osatu, eta Lapurdik eta Behenafarroak ere ez zuten kirol guztietan parte hartu. Iparraldekoentzat garai txarra izaten da oraingoa, herri kirolean aritzen diren kirolari aunitz errugbian edo futboleko aritzen direlako. Nafarroa izan zen txapelduna sailkapen orokorrean, batez ere kirol guztietan erakutsi zuen erregulartasunari esker. Izan ere, hamar kiroleetatik bitan bakarrik irabazi zuen, koxkor biltzen eta aizkoran. Fernando Etxegarai beratarra izan zen eguneko izarra, koxkor biltzen Euskal Herriko marka hamar segundutan hobetu baitzuen. Sei minutu eta bi segundutan bildu zituen 50 koxkorak, erakustaldi ederra eskainiz.

Aizkora izan zen azkeneko proba. Bertara, puntutan berdinduak ailegatu ziren Bizkaia eta Nafarroa. Donato Larretxearen ordez, Floren Nazabal, Euskal Herriko txapelduna aritu zen eta garaipena eman zion Nafarroari.

Arestian aipatu bezala, erregulartasune-



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Nafarroako selekzioko kideak eta Mikel Lasarte, Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakaria txapeldunen kopa altxatuta.

an oinarritu zen Nafarroaren garaipena. Txapelik ez zuen lortu, baina sokatiran bigarren izan zen lesakako Beti Gazte. Bizkaiaiko Abadiñoren kontra lehendabiziko bi tiraldiak galdu zituzten lesakarek. Moralarentzat kolpe gogorra izan zen, baina lanean serio segitu zuten, bertze tiraldi guztiak irabazizituzten eta sei puntu eman zizkieten Nafarroari. Ingude altxatzen ere, Xabi Sein igantziarrak 88 altxaldi egin zituen, Nafarroako errekorra berdinduz. Bertze altxaldi bat ere egiteko

puntuan izan zen, baina ez zuen lortu. Bigarren izan zen, Bizkaia-ko Joxe Lapazararen ondotik.

Lasto altxatzen ere bigarren izan zen Iñaki Bereau igantziarra, Jose Mari Bustinza "Tubi" bizkaitarraren ondotik.

Dena den, garaipen gehien Gipuzkoako eskuratu zituen, lau kirolean gailendu baitzen. Agirregabiria txingetan, Izeta II. harri jasotzen, Arrieta orga jokoan eta Gabirondo-Esnaola arpanan. Txingetan, Patxi Larretxea arraioztarra laugarren izan zen.

Harri jasotzen, Beintza-Labaiengo Josetxo Urrutiak 29 altxaldi eman zizkion ehun kiloko kopa harriari eta laugarren izan zen. Orga jokoan, Uharte Arakilgo Jaime Gorriti bosgarren izan zen. Arpanan, Kañamarek anaiak hirugarren postua lortu zuten.

Bizkaia, aipatu bezala, sokatiran, ingudean eta lasto altxatzen lortu zituen txapelak eta Lapurdik ere bere garaipena juxtu-juxtuan eskuratu zuen zaku lasterketan. Celestin, Duhau eta Lapitzek zazpitesimarengatik lor-

tu zuten txapela. Hemen ere Nafarroa izan zen bigarren. Xabi Maritoren aniztarra aritu zen Nafarroako taldearekin. Arabak eta Behenafarroak ezin izan zuten proba bat bera ere irabazi.

Azkenean, garaipena Nafarroarentzat. Joan den urtean Gipuzkoarekin puntu berdinekin akautu zuen gure herrialdeak, baina postuengatik gipuzkoarrek irabazi zuten txapela. Aurten ere lehia estua izan da, baina Nafarroa gelditu da txapela.



Fernando ETXEGARAI Koxkorrak

“Ustegabeko handia izan da hamar segundutan Euskal Herriko errekorra hobetzea, kontent nago”

Hamar segundutan hobetu duzu Euskal Herriko marka. Espero zenuen?

Sei minutuko lanean hamar segundu hobetzea ikaragarria da, baina dena ongi atera zait. Koxkorrak urruti xamarretik botatzen arriskatu dut, baina ez zait bat bera ere kanpora ateri. Hagitz kontent nago egin-dako lanarekin eta gainera, joan den urtean ia lortu eta gero, aurtan

Nafarroak txapela janzteko baliagarria izan da. Eguraldia ere ona izan dugu, eguzkia baina haitze frexkoarekin.

Aitzinera begira, zer gelditzen zaizu denboraldi honetan?

Zazpi herrialdeetako txapelketaren eta Lizuniagako Igoeraren ondotik, aurtengo denboraldia akautzat emanen dut. Hilabeteko atsedena hartu eta berriz ere hasiko naiz lanean.



Xabi SEIN Ingudea

“Nafarroako marka ontzeko hagitz gutti faltatu zait”

Orain arte 85 altxaldi zen nire marka eta horixe hobetzea nuen helburua. Nafarroako marka berdindu dut 88 altxaldirekin eta bertze bat egiteko hagitz gutti faltatu zait. Hagitz gustora nago marka berri honekin eta entrenamenduetan saiatzen segituz gero, errekorra egiten ahal dudala ikusi da.

ATLETISMOA

Ramuntxo Lamothe saratarrak irabazi zuen Lizuniagako Igoera

Hogeitabigarren edizio honetan, Fernando Etxegarai beratarra izan zen bigarren

A.A.

Ramuntxo Lamothe saratarrak irabazi zuen urriaren 27an Beran jotutako Lizuniagako hogeita bigarren Igoera. Sarakoak 17 minutu eta 38 segundu behar izan zituen proba akautzeko, bigarren izan zen Fernando Etxegarai beratarrak baino hamabi segundu guttiago. Proba hasera-haseratik beratarra eta saratarra aitzinetik izan ziren. Fernando Etxegarai eritmo gogorra paratu zuen, baina Ramuntxo Lamothe ongi eutsi zion. Malet inguruan erritmoa bizitu egin zuen beratarrak, baina ez zuen Sarakoa giblean uztea lortu. Azken metrotan eraso jo zuen Ramuntxok eta Fernandok ezin izan zion eutsi.

Juan Carlos Korta irundarrak osatu zuen podiuma (18'04"). Joxelu Loiarte beratarra bosgarren izan zen (19'38"). Jose Jabier Elizaintzin iruritarra zortzigarren izan zen (20'11"), Xabi Prieto beratarra bederatzigarren (20'30") eta Denis Barcardatz senperrak hamekargarren (21'10").

Emakumezkoen artean, Marisol Martinez irundarra izan zen azkarrena, 22 minutu eta 24 segunduko denborarekin. Angeluko Nicole Doyhambehare bigarren izan zen (24'36")



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Fernando Etxegarai beratarra eta Ramuntxo Lamothe saratarra, Lizuniagako maldan goiti.

eta Sole Garmendia beratarra hirugarren (27'07").

Beterano kategorian ere maila polita erakutsi zuten korrikalariak. Amasako Jose Ramon Galarraga izan zen azkarrena, 18 minutu eta 16 segunduko denborarekin. Bernard Saint Martin saratarra bigarren izan zen (20'40") eta Tomas Telletxea beratarrak segundu bat gehiago behar izan zuen. Josetxo Sanzberro etxalartarra laugarren izan zen (21'09"), Sabino Goiburu azkaindarrak bosgarren

(21'20"), Bautista Telletxea beratarra seigarren (21'34"), Michel Lartagu senperetarra bederatzigarren (23'28") eta Cristian Berlan azkaindarrak hamargarren (23'54").

Gazte mailan, ongi ibili ziren herriko korrikalariak. Ibai Iturria eta Gwendal Arque beratarrak eskutik helduta ailegatu ziren helmugara. 24 minutu eta 7 segundu behar izan zituen Ibaik, eta segundu bat gehiago Gwendalek. Aritz Arbelaitz hirugarren izan zen (25'20").

AGENDA egunez egun

KONTZERTUAK

BERA

Azaroaren 15ean Bidaxka Ostatuan Nicholas Vroman kantaria (EEBBtako folkla), 22:00etan.

Azaroaren 16an Pierre Bastien (musika esperimental) Kultur Etxean, 22:00etan.

ZUGARRAMURDI

Azaroaren 30ean 20:30etan Electrotuna plazan eta gero kontzertua Kinkinela eta Des+karada taldeekin.

SOLASALDI

SENPERE

Azaroaren 25ean 19:00etan Oxtikenean Maiatz aldizkariaren solasaldiak: Gaia: hatsa elkarteak agertu Poesia-liburuen aurkezpen eta olerki irakurketa.

GOIZUETA

Azaroaren 16an 19:00etan Pello Zabala eguraldi gizona Ganbara Kultur Aretoan.

DEIALDI

GOIZUETA

Azaroaren 23an 1960. hamarkadako jantziek in poteoa eta afaria antolatatu du Gazte Asanbladak.

ANTZERKIA

LESAKA

Azaroaren 17an Mairu antzerki taldearen «Zugarramurdiko sorginak», 18:00etan Zambran.

BERA

Azaroaren 17 eta 24an Errekalde eta Pui ostatueta, Goaz eta Goizeko Izarra taldeen emanaldiak 19:00etan, Kafe Antzerki zikloaren barnean.
Azaroaren 23an «La casa de Bernarda Alba» antzezlan eskainiko du Itzatu antzerki taldeak Kultur Etxean 19:30etan.

TELEBISTAKO TXOKOA



UDAZKENEKO AZKEN AZOKAK


Doneztebe eta Lesakako ferien berri telebistan

Elizondoko Feriak, Berako Lurra- ren Eguna, Arantzako Baserritar- ren Eguna... Udazken partean lu- rrak eta baserriak ematen digute- na plazaratzeko hainbat hitzordu pasatuak dira eta horren berri xu- xena jaso duzue ttipi-ttapa tele- bistaren bitartez. Udazkena itzal- tzen ari zaigu poliki-poliki, negua- ri bidea emanez. Oraindik, orde- a, bi feria egun garrantzitsu falta di- ra. Doneztebe eta Lesakako fe- riak. Doneztebekoak ortziral ho- netan izanen dira. Beti bezala, goi- zean azienda feria izanen da—aur- tengoan, jatorri izendapena duten euskal oiloa ikusteko modua ere

izanen da—. Eguerd partean Pe- ñagarikano eta Lizaso bertsolariak ariko dira. Ekitaldi hauek ortzira- leko albiste saioan ikusgai izanen duzue. Arratsalde, berriz, Nafa- rroa eta Gipuzkoaren arteko aiz- kora saioa izanen da. Honen be- rri, asteleheneko Jokoa Solas ki- rol saioan bilduko dugu luze eta zabal.

LESAKAKO FERIAK HILAREN 28AN
Azaroaren 28an izanen dira aur- ten Bortzirietako feriak. Goizeko azienda lehiaketa, herri kirol eta bertso saioak, arratsaldeko pilota partidak... Dena ttipi-ttapa TBn.

DISKAK



«Nere Ekialdean»

Benito Lertxundi

ELKAR, 2002

Nere Ekialdean, Benito Lertxundi bere sortzaile- aren ekialdeeneko go- goaren etorria duzu, itsa- soa esnatzen duen in- tuizioak berak sorturik, ortzimugan, lehorra, ura eta zerua linea ezabatu batean elkartzen dituz- ten argi gorrixkak ma- rrazten dituelarik. Nere Ekialdean izeneko diska honetan, sentimendu li- riko eta estetiko natural bezain barnekoi batek kantatzen du, atzean, zi- larrezko uhararen mo- dura, melodia sujeriko- rrak eta burutazio eter- noak utziz. Hemen bizi diren abestiak ekialdeko haizearekin bat datoz, suabeak baitira erritmo zein pausan, nahiz ba- samortu beroaren mis- terioa eta intentsitatea dakartzaten bere baitan. Hemen bizi diren abes- tiak, itxaropenaren ola- tuak gozotzen dituzten kaio zuriak dira, Lert- xundiren diskarik landu eta garatuenean.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Urriaren 25etik azaroaren 1era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 22,00 €

Zerri gizona
0,86 € kilo.

Zerramak:
0,38 € kilo, bizirik.

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,22
1.koa 3,10
2.koa 2,98
Urruxak: Pta/kg. Kanal
Extra 3,28
1.koa 3,16
2.koa 3,05

Oharra: Prezioak 180- 220 Kg. kanalean pisa- tzen duten aretzeenak di- ra.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Mestizoak: urruxak 252,43 € eta idixkoak 228,38 €

Nabarrak: urruxak 200,36 € eta idixkoak 176,32 €.
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,79/2,95
Zaldi-behorrak: 1,80/1,86
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,31/7,61
8-10 kilokoak: 6,36/6,80

JAKIN BEHARREKOAK

Zahartzea eta erretiroa

Lanetik erretirorako bidea aldaketa hagitz haundia da pertsona batentzat, lanaren aroarekin akautzea erran nahi baitu. Bere denbora libre betetzen ikasi behar du pertsona horrek. Garai honetan, behar beharrezkoa da zerbaitetan aritzea.

Gaur egun erretiroa nahitahieztatu beharrezkoa da. Baina 70 urteko pertsona bat edozein lan egiteko sasoi betean egoten ahal da, beraz, erretiroa alferrikakoa dela edo ez gauza dela erratea bezala hartzen ahal du.

Erretirorako prestatzea hagitz garrantzitsua da. Egun hori ailegatuko dela jabetzen den pertsonak lanpetua egoteko bertzte aukerakibatuko ditu, baliagarri sentitzeko. Baina hori onartzen ez duenari, erretiroa «bapatean» ailegatuko zaio eta depresioa edo antsietatea bezalako nahasteak izateko joera izanen du.

Edozein gisatara, pertsona guztiak ezberdinak dira eta bakoitzak modu ezberdinean bizituko du garai hau. Dena den, bere bizitza osoa lanaren inguruan antolatu duenak gehiago sufituko du bertzte denbo-

rapasak, hobbiek, adiskideak... landu dituenak baino. Horretarako, garrantzitsua da lanaz gain,

gure lagunetaz eta afizioetaz gozatzeko astia izatea uzten digun bizimodua edukitzea. Modu berean, kontuan izan behar dugu erretiratuaren ondoan gauden pertsonak ere hagitz lan haundia dugula egiteko. Kontuan hartu behar dugu pertsona bat zahartzen ari delako ez dela alferrikakoa bihurtzen, oraindik gizarteari eskaintzeko gauza aunitz dituela baizik. Horregatik, lagundu egin behar zaio, gauzak egitera animatu. Eta gauza horiek ez dute «bereziak»



Erretiratzeko ez sobera sufitzeko, garrantzitsua da lanaz gain, gure lagunetaz eta afizioetaz gozatzeko astia izatea uzten digun bizimodua edukitzea.

izan behar, egunerokoak baizik: etxeko lanetan lagundu, bilobak pasiatzera atera, irakurri... Gazteek kontuan hartu behar dute urteak betetzea eta zahartzea ez duela tuntu-na edo alferrikakoa bihurtzen zarela erran nahi, alderantziz baizik: adineko jendearen esperientzia baliagarria izaten ahal zaigu, bertzerik gabe, «beldurriak» ernatu eta pixka bat aditu egin behar diegu.

Rakel AMIGO
Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak

AGENDA egunez egun

TOPAKETAK

LEITZA

Azaroaren 17an
Mendialdeko Abesbatzen Topaketa. Xehetasunak 18. orrian.

JARDUNALDIAK

BERA

Azaroaren 15, 22 eta 29an
Soziolinguistika jardunaldiak, Jamotenean 19:00etan. Bidasoa Ikerketa Zentroak antolatua.

FERIAK

DONEZTEBE

Azaroaren 15ean. Goizean azienda feria, Peñagarikano eta Lizaso bertsolariak. Arratsaldean, Nafarroa-Gipuzkoa aizkora saioa.

LESAKA

Azaroaren 28an.
Xehetasunak erdiko gehigarrian.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Azaroaren 17a arte Javier Iriarte margolariaren erakusketa zabalik Arizkunenea Kultur Etxean, 18:30etatik 20:30etara, Artinex XXI Programazioaren barne.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Azaroaren 11tik 17ra

Lesaka (L. Marin), Sunbilla, Elizondo (F. Lezaun), Arizkun, Urdazubi, Leitza (A. Gimeno), Goizueta.

Azaroaren 18tik 24ra

Bera (A. Lasarte), Doneztebe (M. Etxarte), Elizondo (R. Gezuraga), Goizueta.

Az. 25etik abenduak 1era

Bera (A. Fernandez), Ituren, Elizondo (Iturralde), Irurita, Leitza (O. Erbiti), Goizueta.

BERAKO KULTUR BATZORDEA

Pierre Bastien

Azaroak 16, 22:00etan Kultur Etxean, musika esperimentalaren Ertz Arte Guneak antolatua.

Itzatu antzerki taldea

Azaroak 23, 19:30etan La Casa de Bernarda Alba taularatuko du Errenteriako emakume talde honek.

Soziolinguistika jardunaldiak

Azaroak 15, 22 eta 29, ortzirala, 18:30etan GureTxokoa Bidasoa Ikerketa Zentroak antolatua. Euskararen Legea. Goio Monreal, Eduardo Aldasoro eta Xabier Mendiguren.

Kafe Antzerki Zikloa

Azaroak 17 eta 24, igandea, 19:00etan Errekalde eta Pui Ostatueta. Goaz taldeak Tabernakuloo lana emanen du, eta Goizeko Izarrak esketxak aurkeztuko ditu.

Dantza Garaikide eta Inprobisazio ikastaroa

Azaroaren 29, 30 eta abenduaren 1ean, Berako Kultur Etxean. Izenematea 943660330 telefonoan, azaroaren 20a baino lehen.

Sail honetan iragarkia jartzeko 6,30 € ordaindu behar da. Titi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 6,30 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea titi-ttapa igoz faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. titi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA Pisua salgai, duplexa. 5 gela eta terraza. ☎ 646 266730 Laura

DONOSTIA. Altzan pisua salgai. 3 logela, bainua, sukalde-egongela eta balkoi ederra. Bista onak. 155.000 € (negoziagari). ☎ 948 186448.

LEITZA. Amazabalen 88 m²ko pisua salgai. Laugarren pisua aszensorearekin. ☎ 677 812208 (arratsaldeko 7etatik aurrera).

LESAKA. Pisua salgai. ☎ 948 210990.

BULDAIN LEITZAN

7 pisu, baserri eta borda salgai.
☎ 649 476 615
☎ 948 510 534 bulegoa

ETXEBIZITZAK

103 Errentan emateko

SUNBILLA. Baserri osoa errentan emanen nuke. Baratzte eta lorategiarekin. ☎ 948 393 070 / 608 672 106

• **BAZTAN BIDASOA** aldean lur eremuak erosiko nituzke.

☎ 607 978 656

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartzeko

LESAKA. Pisua errentan hartu edo erosiko nuke. Pertsona bakarrarentzako. ☎ 661 845 048.

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 948 625000 (goizez, Gerardo), 637242406 (arratsaldez).

ETXEBIZITZAK

105 Etxe konpartituak

IRUÑA. Pertsona euskalduna behar da pisua konpartitzeko. Barañain aldean. ☎ 678 249 174-610 622 889

GARAJE/LOKALAK

109 Errentan emateko

BERA. Lokal komertziala alokatzen da Kanttonberri karrikan. 66m², komuna eta al-

ADOS

• Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.
• Edozein herrian badugu zerbitzu. Eskatu informazioa
948 451 841 / 639 494 522

ADOS

DONEZTEBE • Santa Luzia Plaza
8 apartamentu eta 200m² lokal komertziala eraikiko dira. Erreserbak. 125 m²ko azken pisu berria salgai.

948 451 841

mazena. Obra egin berria. ☎ 655 706363 / 655 706 364

ETXALAR. Nabe bat errentan emateko. Karretera bertan, herrisarrera, Lorpen lantegia zena. 300 m² inguru, 4 bulego, nabe bat eta komuna. ☎ 948 635 013

LANA

301 Eskaria

33 urteko emakume batek lan eginen luke. zaharrekin esperientzia. ☎ 948 637562.

Lan eginen nuke etxeko lanetan edo haurrak zaintzen. ☎ 948 387 056

GANIX Tailerrak

Iturialdeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

**IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua**

LANA

302 Eskaintzak

Administrari laguntzailea. Deialdiak eginen dira abudato. Prestatu eta lan egin. ☎ 943444182.

Administrariak. Gipuzkoako Diputazioak 101 lanpostuen deialdia egin du. Baldintzak: Eskola Graduata. Prestatu eta lan egin. ☎ 943444182.

Su-hiltzaileak. Euskadiko parketan lan egiteko presta zaitez. Lan baldintza ederrak. Prestatu eta lan egin. ☎ 943444182.

Udaltzaina izan nahi duzu? Donostiako Udalera 56 lanposturen deialdia egin da. Informa zaitez. ☎ 943444182.

Oihantzaina. Euskadiko par-



BAZTANGO UDALA

Sukaldean erabilitako olioien
bilketa egunak

2002ko azaroaren 28an

Elizondo	9:00-13:00	Merkatuko zelaia
Elbete	13:05-13:30	Karriketan barna
Arizkun	13:45-14:15	Karriketan barna
Erratzu	14:20-14:50	Karriketan barna
Amaiur	15:00-15:30	Karriketan barna
Azpilkueta	15:40-16:00	Karriketan barna

☎ 948 580 006
Baztango Udala



MARTIKO
*Abatekietan
adituak eta arituak*

☎ 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA

MENDAUR MOTOR

© 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Corsa D, Astra D familiarra, Terrano 3ate 160cc, Suzuki Ignis 4x4, Renault expres D 5.000km, Saxo D, Laguna TD, C15 D
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN



HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519



BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

ARANTZA ZYRGINDEGIA
Jose Miguel Errandonea
Klase guztietako
zurgin lanak
Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

ke eta natur erreserbetan lan egiteko. Baldintza: Eskola Graduatua. Prestatu eta lan egin. ☎ 943444182.

Garraiolaria. Garraio lane-tan profesionala izateko titulua lor ezazu. Informa zaituz. ☎ 943444182.

Autoeskola irakaslea. Di-ru-sarrera garrantzitsuak. Se-gurutik lana izanen duzu. In-forma zaituz. ☎ 943444182.

DONOSTIA. Pertsona bat behar da. Interneta haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 605 708 721

HENDAIA. Etxekolana kegin eta haurrak zaintzeko per-sona bat behar da. ☎ 669 247076.

MOTORRA**501 Salerosketak**

Gas Gas motoa salgai, 1996koa. 370 cc. Egoera onean. ☎ 948 635218 edo 626 927784.

Sei eserleku dituen furgoneta Peugeot J5 salgai. Mo-bleztatua eta isolatua. ☎ 617 350 176

ANIMALIAK**601 Emateko**

Purita izeneko arratoi zaku-rra naiz. Kumeak izan ditut eta hiru beltz edo bi eme eta ar bat gelditzen zaizkit emateko. ☎ 948 451 787 Ituren

ANIMALIAK
602 Saldu/Erosi

Setter ingeles arrazako zakurkumeak salgai. ☎ 948 453 048

12 ardi salgai. ☎ 689 042 598.

DENETARIK
702 Salerosketak

Sukalde ekonomikoa 60 x

60, deville markakoa egoe-ra haitz onean salgai. ☎ 948 630 029

Etxe guztirako kontsumo ba-juzko kalefaktore elektri-koa salgai. ☎ 948 630 029

DENETARIK
703 Bertzelakoak

Traktoreari lotzeko kablea edo trola salgai, egurra ate-

ratzeko egokia. ☎ 629 417 078

80m²ko lokala hornitze-ko apalak salgai. Goxo-kientzako metakrilatozko bo-teak ere saltzen ditugu. Mo-blea eta ppisera opari. ☎ 655 706 363 / 655706 364.

LESAKA. 400 litro sagar-do saltzeko, botillatua edo orain egin berria. ☎ 948

637912.

Akordeoi klaseak jubila-tuentzat bereziak. Bakar-kakoak, ordutegi flexiblea, musika ezaguerarik gabe. ☎ 948 631 003

DONEZTEBE. Zilarrezko zintzilarioa aurkitu da. Sergio izena jartzen du. ☎ 948 451 742



TTIPI TXARTELArekin

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA DEBALDE HARTUKO DUZU

ETA DENDA HAUEN KASUAN HONAKO DESKONTUAK DITUZU

ESKUALDEKO 40 ZERBITZU ETA DENDETAN **DESKONTUAK**

 KONPONKETA ETA SALMENTA Ubela industrialdea • BERA Tfnoa.: 948 631157 608 778023 % 5 merkeago errekanbioetan	 PRENTSA • OPARIAK FOTOKOPIAK • TESTU LIBURUAK Herriko Plaza • LEITZA Tfno-Faxa.: 948 510146 % 10 merkeago opari artikuluetan	 Begiaren errebisioak audifonoak... Santiago, 62 • ELIZONDO Tfnoa.: 948 581391 % 10 merkeago
 ZAPATADENDA • PAPERTEGIA Parrokia, 17 • DONEZTEBE Tfno-Faxa.: 948 450289 % 5 merkeago oinetakoetan	 Lentzeria eta kortseteria Parrokia, 11 • DONEZTEBE Tfnoa.: 948 450112 % 10 merkeago 30 €tik goiti	 Jantziak • Osagarriak • Opariak Santiago, 88 • ELIZONDO Tfnoa.: 948 580939 % 10 merkeago 30 €tik goiti


Cheli Estelizista

- Aurpegiko tratamenduak
- Oripuzteko tratamenduak
- Alabro pigmentazioa
- Depilazioa
- Masajeak

Zabala Plaza, 8
20081 IRUÑA
Tfno: 943 51 84 88

Argazki soilak: 3 €. Bikoitzak: 6 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,25€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3 edo 6 €ko txekia. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



NEREA IRIONDOK 12 urte bete ditu azaroaren 9an. Jadanik zahartzen hasi zaigu, erosi bastoia abudo! Zorionak denen partetik.



ELVIRA FUENTES CALVO sunbildarrak azaroaren 15ean 5 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik, berexiki Ekiñen partetik. Sorgiña



SAIOA DE LA FLOR BALEZTENAK azaroaren 23an urteak beteko ditu. Zorionak Aurtizko familiaren partetik, berexiki Ekiñen partetik. Sorgiña




MARTINA BALEZTENAK abenduaren 8an urteak beteko ditu. Zorionak Ima nol, Andrea eta familiaren partetik. Gonbitea espero dugu.



SAIOA ZELAIETA LAZKANO beratarak azaroaren 30ean 2 urte beteko ditu. 2 muxe handi Oier eta Aimarren partetik.



SAIOA ZELAIETA LAZKANO beratarak azaroaren 30ean 2 urte beteko ditu. aunitz urtez panpoxa atxa eta amaren partetik.



JON ARAMBILLET GALZAGORRI sunbildarrak azaroaren 4an urteak beteko ditu. zorionak familiaren partetik.



SAIOA ZELAIETA LAZKANO beratarak azaroaren 30ean 2 urte beteko ditu. Zorionak atautxi, amaxi eta osaba Txixoren partetik.



IKER ARAMENDIA LANDA ETA ANE OSKARIZ LANDA zangotzarrek 27 eta 5 urte beteko dituzte azaroaren 26an eta 30ean. Zorionak eta muxe haundi bana Karlos eta Lolaren partetik.



MATTIN GARBISU ZOZAIA beratarak azaroaren 19an 6 urte beteko ditu. Zorionak atxa, ama eta Saioaren partetik.

KULTURKARIren zerbitzu komertzialak

FOILETOAK

Bi zerbitzuak, bikoitzak, koloretan, zuri-berdez, ofizial-ekin edo irakurleentzat.



OROIGARRIAK



KARTELAK



Neurtu, kolore eta paper desberdinak

ALDIZKARIAK



Komiki zatiak, neurtu eta kopiatuak, jantzi gutxiak dirakatuak

INPRIMAKIAK

Kartak, etiketak, ofizialak, irakurleentzat.



BUZOIRATZEKOAK



PUBLIZITATEA

Publizitate konpainien antolatutako egunkari, irati eta telebistetan


INPRENTA LANAK

Disenatzaile, maketazioa eta inprenta lanak

TTIPI-TTAPA FUNDATIOAK zerbitzu osagarriak ere eskaini nahi dizkizu. Horretarako sortua du **KULTURKARI**, zuk behar dituzun zerbitzu horiek eskutik eskura eskaintzeko.

KULTURKARI
948631188

kulturkari@euskalnet.net



www.ikn.cm



ZE MIK
ET INVEN
E KUSKET IK
IKUSG IEN
EUSK L HE IK EZI IK I E EN K

 **alkain**
z ramikak ta bainuak

UNION II
 (r n) M lu l n
 Tfr . 3 525 / x 3 5 55
 0 1 1 s 3 22 3 2 2
 L m 1 0 1 43

MUEBLES A METS

**larunbat
arratsaldetan
irekia**

4000 m² erakusketa



Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak



BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com

Sarrera BERAtik da *Sastrin karrika, 3.2 - 3.4 Alkaiaga*
31789 LESAKA *Tfnoa. 948 630 537 Fax. 948 631 443*

EZ BADUZU NAHI BIRZIKLATZE SISTEMA GELDITZE BEREIXI!

Plastikozko
enbaseak,
latak eta
brikak.



Kartoizko enbaseak,
paperak,
egunkariak
eta aldizkariak.



Kristalezko
botilak,
flasko eta
poteak



BAZTANGO UDALA



BORTZIRIETAKO
HIRI HONDAKINEN
MANKOMUNITATEA



MALERREKAKO
MANKOMUNITATEA



URDZUBIKO
UDALA



ZUGARRAMURDIKO
UDALA



BEREIZTEA ZURE ESKU DAGO
BIRZIKLATZE DENON ESKU

